

belke

2003ko URRIA,
115. ZENB. DOHAINIK



Karidadeko Bentak lehen diskoa atera du

Musikaren eta bertsoen benta



EGURALDIA hozten hasi da. Udazkeneko lehen egunek neguaren atarian gaudela adierazi nahi izan digute, non-bait. Bat batean bainujantziak gorde, eta jertse lodiak atera beharrean

izan gara.

Hostoak zuhaitzetatik erortzen hasita daude. Udazkena. Neguaren aurreko. Gure zuhaitzetik ere hosto dotore bat erortzen ari da. Orriz betetako hostoa. Ondo begiratuta, argazkiak ere badituela ikusten da. Litekeena da hosto arraroa izatea, Baleike.



Barrukoa marren bitartez bereizita dakar. Ze berri sailean, berri ugari du. Berriak eta zaharrak. Perretxiko garaia, Erramun Manterolari egindako omenaldia, Xabier Galparso-

roren hilketaren hamargarren urteurrena...

Albisteei gainbegiratu eman eta gero, beste sail batean *jardunian* egiteko aukera dago. Benta berezi baten berri ematen da. Karidadeko Benta dute izena, eta oraintxe kaleratu dute lehen diskoa.



Hostoaren erdialdean, ardatza dago. *Ur haunditan* atala dago gune horretan. Igor Albizu eta Ramon Gurrutxugaren bitartez, Ekuador eta Bolivia ezagutzeko aukera dago gure hosto bereziaren erdigunean.

Ardatza utzi eta behatzarekin hosto gainean aurrera eginez gero, *olarro zopa* dago. Oraingoan bi eduki berriekin, gainera: musika instrumentuak hobeto ezagutzeko tartea, eta pertsonaia historiko baten biografia.

Gure hostoak denentzako lekua dauka. Kirolariak gustura hartzen ditu bere baitan. Gustuko konpainia ditu. Beti *izerdi patsetan*, duten guztia ematen. Oier Aizpurua, Maite Amilibia eta Maitane Atorrasagasti piraguitak; harrobiko arraunlariak; Iñaki Goikoetxearen hirugarren txapela...

Gure hostoaren ia mutur-muturrean *zarrak* berri dago, aspaldiko kontuekin entretenitzeko. Ehiza kontuekin dator oraingoan.



Gure hostoa lurrean izango da, nok hartuko zain. Kanean zoazela orriz betetako hostoa ikusten baduzu, jaso eta eraman etxera. Ondo zaindu. Urrian beste hostorik ez zaio eroriko zuhaitzari.



HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faksa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea, Ander
Hormazuri, Juan Luis
Romatet

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Luis Mari Aizpurua
(Zakila birako argazkia)


Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udalak



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

ARTEA BERRIZ ERE

Ismael Manterola Ispizua

EZ NUEN Gorka Cabellori erantzuteko asmorik jendea ez nazkatzeagatik, baina Baleikeri saltsa pixkat ematen diola eta hurrengo gutun bat idaztea erabaki dut, azkena izango delakoan. Gauzak argitzeko aldera, "arteak noiz?" galderari nire erantzuna nonahi eta askotan da, espero baino gehiagotan eta hala izan dadila.

Hala ere, Gorkak testuingurutik aterako nire esaldi bat aipatzen duenez, kalitatea eta interesa neurtzeko irizpideak eztabaida honen oinarritzko abiapuntua direla iruditzen zait. Berak esan beharko digu zein erabiltzen dituen.

Niri ere ez zaizkit gauza guztiak gustatzen, adibidez, Rafaelen madonnak ez zaizkit gustatzen nahiz eta jakin mendealdeko artearen historiaren gailurretako bat direla. Bestalde, ez dut uste gure inguruan ikusten ditu-

gun erakusketa guztiak kalitate handi-koak direnik, baina zenbait eta gehiago antolatu orduan eta aukera handiago merezi duen zerbaite ikusteko. Gorka Cabellor literaturarekin egiten duen parekotasunaz baliatuz, Euskal Herrian argitaratzen den guztia ere ez da kalitatezkoa, baina inork ez luke esango literatura ez denik.

Parekotasunarekin jarraituta, ados nago egunkarietako eskelak edo supermerkatuko produktuen etiketetan idatzita dagoena literaturatzat ez hartzen, baina ez al da oso ohikoa, batez ere XX. mendeko literaturan, eleberri baten testuaren barruan horrelako zerbaite irakurtzea? Gauza bera gertatzen da Manuk jarritako kotxea edo lasto pilekin, ez dut uste inork bere horretan irakurri beharko lituzkeenik, "testu" zabalago baten barruan baizik.

Baina, gauza guztiak bezala, bere erlatibotasuna onartu behar zaio artearen kontzeptuari, eta jende guztiak ez du artearen kontzeptu bera eta ezta nahi ere, niretzat artea dena beste norbaitentzat ez. Gaur egungo artearen munduan gauzak baloratzeko erabiltzen diren irizpideak artearen munduaren kontzentzu nahikoa duela iruditzen zait, nahiz eta askok ez onartu, gauza bera gertatzen da beste hainbat eta hainbat kategoria soziokulturalekin.

Bukatzeko, eztabaidan abangoardiaren aipamenak egin beharra izan dudalako, gustura antolatuko nuke Zumaian XX. mendearen arteari buruzko hitzaldi multzo edo kurtso txiki bat, gai hauei guztiei buruz lasaitasunez hitz egiteko eta ez aldizkariko toki mugatu honetan.

Denok berdinak gara... (funtsean)

GENETIKAK ESATEN duenez, pertsona guztiok ia-ia berdinak gara. Geneei dagokienaz, behintzat, %99,8 inguru berdinberdinak ditugu. Hau marka!

Egunero ikusten dugu zein desberdinak garen batzuk eta besteak: desberdin pentsatu, desberdin jantzi, desberdin jan, desberdin jaio... Aniztasuna izugarria da gizakion artean. Hori ukaezina da.

Baina hor dago beste marka hori ere: %99,80 inguru berdinberdinak gara. Bai, zu eta ni, ni eta zu genetikoki ia-ia berdinak gara. Antimilitarista euskalduna eta Espainiako ejerzitoko koronelik fatxena ere berdintsuak gara. Pinochet eta Allende. Arzallus eta ABCko zuzendaria. Emakumerik feministena eta gizonik matxistena. Bortxatua eta bortxatzailea. PP, Batasuna, PSOE, Aralar, UPN, EAJ, EA, EB eta ETAko militanteak. Aznar eta Arnaldo Otegi. Sindikatueta ordezkariek eta patronaleko nagusiak. Aita Santua eta Jazz-Berriko "pastilleroak". Bush eta Osama Bin Laden... Den-denak funtsean berdinak.

Ez al da gogorregia? Nola liteke hori? Bush eta ni ia-ia berdinak garela? Oso gogorra iruditzen zait, baina hala da.

Psikologoen ere aspaldi esana zuten: gizaki guztion oinarritzko beharrak eta joerak oso antzekoak dira. Denok behar dugu jan, lo egin, aterpea bilatu, bizimodua atera, babestuta sentitu, arrazoa dugula sinistu, besteak kritikatu norbera indartzeko, eta abar. Denok antzeko beharrak ditugu, nahiz eta oso modu desberdinetan gauzatzen dugun hori guztia.

Erligio askok ere aspalditik zabaldu izan dituzte antzeko mezuak: "Jainkoen" aurrean denok gara berdinak, eta denontzat ateratzen omen da Eguzkia, desberdintasunak nolabait erlatibizatuz.

Zer pentsatua ematen dit... Eta gogorra izan arren, iruditzen zait gogoan izan beharko genukeela genetikaren irakaspena. Beti, baina batez ere inor kritikatzeko hasten garenean. Ez gaitzen erori tentazio tentagarri horretan: "ni ez naiz zu bezalako...". Izan ere, funtsean, sakonean, ia-ia berdinak gara guztiok.



Joseba Ossa

“Nere burua batallitak kontatzen harrapatu nuen uda”

DENA ERLATIBOA omen da, eta hala, esan daiteke nire berriketarako zaletasuna berritxukeria bihur daitekeela bat edo besterentzat (ez galdetu nire etxeko gizonari!). Halere, orain arte bazen bide erraz bat nire hitzazpertua eteteko: zenbat pixatzen dudana galdetzea; bat-bateko presa larria jabetzen da nitaz hori entzutean.

Ba tira, orain beste gai bat duzue ni uxatzeko, “eta zenbat urte dituzu ba?” galdera.

Begira, somatuak nituen aspaldian xahartzen ari naizenaren hainbat sintoma:

- Kremen apala: hidratante, multibitamina, ximur-ezabatzaille eta ultralifting delakoak azaldu dira (alegia, aguaplast tarro txikian)
- Grabedadea: grabea baita benetan, deena behera! Newton-ek sagarraren kontu horrekin asmatu zuen ba zerbaite, zergaitik ez zuen konpota egin?
- Larunbat gauak etxean: tabernazulotan gintonikak edan

beharrean, kamisoitan sofán, txokolatea jan eta Salsa Rosa (edo auskalo zer) ikusten.

- Kintoen afariak: ni zein urtekoa? Keba, inkognitoean saia gaitzen.

Eta kontatuko ez ditudan gauza gehiago.

Halaxe kontuak, baina 40 urteko krisialdirako oraindik urte batzuk falta zaizkidan arren, (baietz! Askok gainera!) uda hontan sintoma are kezagarriago eta nabarmenago bat ikusi diot nire buruari, “batallitak”. Badakizue, “jo, guk adin hortan aukera hori izan bagenu..”, “oraingo gazteek bla bla bla”, edo “gazteak ginenean sekulako...”. Hitzetik hortzera, aizue!

Agian aspaldi hasi nintzen, baina aurtengo udan horrelakoak ahoan galipota hankazpian baino ugariago erakutsi ditut.

Beraz, jasan nauzuen guztioi barkamena eskatzen dizuet, eta “enmiendarako” borondatea agintzen. Badakizue, adinaren kontuak,...



Miriam Romatet



Basadi Auzategia, 10 beheha
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



Zer izan nahi dudan



Estitxu Eizagirre

URRIA DA zerotik hasteko garaia. Paol muturreko bidean goazela, lurrera begira, eta soinua ateratzeko hankekin propio ahalik eta hosto lehor gehien kraskatuz, aurtzen zer izan nahi dugun pentsatzen

dugu. "Aurtzen arraunean hasiko naiz...", edo "aurtzen yoga egingo det...", edo "ba, aurtzen urte sabatikua, siloitik frigorifikora, ta buelta arratsalde osuan!".

Badirudi ezin dugula denbora libreegi eduki. Denbora zatikatu egin behar dugula, arratsaldea hobby-puska batzuk bihurtu. Astelehenero musika, astearteetan saskibaloia, asteazkenean ingles... Urrezko arau bakarria egoten da, etxe gehienetan: hasitakoa bukatu. Apuntatu bazara, ezin da desapuntatu. Lehen umeak bakarrik, eta orain bizi osoan ume izango direnak eta ume izandakoak ere ibiltzen dira kultur-etxetik polikiroldegira. Urria proiektu garaia da, etorriko da ekaina zenbat gauza ez ditugun bete gogorazterea, eta urrian hobby ziren gauzak konpromiso eta zama bihurtzera. Gorka, zuk zer izan nahi dezu aurtzen?

Denbora eske

Gorka



URRIA DA ehunetik hasteko garaia. Lanerako bidean edo eskolatik bueltan haize eroak lurreko zakarrak astintzen dituen bitartean eta udako arropa ala negukoa jantzi ezin asmatu gabiltzala, hor goaz, pasian, konturatuta gauak nola jan dion arratsaldea egunari. Nahigabea ohartzen gara iluntze honetaz, bat-batean esnatu bagina bezala, eta neurri batean halaxe da; azken finean, udak neguko memoria ilunak eta nekagarriak estali eta, zorionez, frexko-frexko uzten gaitu, jaioberri, ikasturte berriari indarrez beteta ekiteko.

Inozentzia honek sortzen duen ilusioak eramaten gaitu proiektu zoragarriak amestera eta, bai, zergatik ez aitortu, nik ere baditut nireak baina denen gainetik lehentasun bat: DENBORA. Denbora izan nahi nuke, aspertzeko, ezer ez egiteko, egoteko, baina, batez ere, denbora alabarekin egoteko, hazteko, ikasteko. Bestelako proiektuek izango dute, beharbada, bere garaia baina aurtengoan... Eta hik, Karmelo, ba al duk ezer ez egiteko asmorik?

Denbora gara

Ixiar Eizagirre



URRIA DA zero azpitik hasten naizen garaia. Estitxu eta Gorka, lankide trinitariok, udazkenaren malenkoniak ikututa zaudetela iruditzen zait. Ni berriz, ez dakit zerk ikututa nagoen, baina goibeheraldi edo depresio punto bat somatzen dut nire baitan. Pentsa, lerrotxo hauek idasteko ere, Aitorren akuilakada sentitu dudana arte, kieto parao. Zero azpitik diot, zeren eta opor egunak eta diruak agortu ondoren hutsune haundi xamarra sentitzen dut. Urria benetan urri !!. Eta gaineratzen badut, asteen egun bat gehiago lan egin behar dudala (larunbatetan), ba nire egoera animikoaren arrazoiak bistakoak dira. Beraz, une honetan

proiektuak alde batetara utzi eta poliki poliki "zuloa" betetzen hastearekin nahikoa diat. Gizakiok zerbait baldin bagara DENBORA gara; pasakor edo iheskor den denbora. Norberak bere erara maneiatu nahiko lukeena; baina gehienetan "beste indar" batzuk gestionatzen dute gure denbora, eta gure esku gelditzen zaigun apurra, herena edo, DENBORA izaten jarraitzeko erabiltzen dugu gehienbat. Zenbat eta gure denboraren zati haundiagoa eskuratu, orduan eta zorionsuago izango garela uste dut. Denbora eskuratzea, bizitzaren eguneroko lana behar du izan, eta ez erretiro garaietarako utzi.

EGONALDIK ATZERRIAN



Ikasturte honetan ere Zumaiaiko Institutuak Leonardo da Vinci programa jarri du martxan

Leonardo da Vinci Europako Elkartek finantzatzeko duen programa da, eta beken bitartez, atzerrian egonaldiak bultzatzen ditu. Programak nazioarteko kooperazioa lanbide heziketaren mailan indartu nahi du, kalitatea eta berrikuntza bereziki azpimarratuz. Esan beharra dago, Zumaiaiko Institutuko ikasleen kasuan Leonardo da Vinci elkartetik etorritako diruari Eusko Jaurlaritzaren eta Zumaiaiko Udalaren dirulaguntzak gehitu zaizkiola.

Orain arte, Zumaiaiko Institutuak bost proiektu aurkeztu ditu deialdi desberdinetan, eta kasu guztietan onartuak izan dira. Aurten, hau da,

ikasturte honetarako, bi proiektu aurkeztu dira eta biak aurrera eramango dira:

- lau ikasle ohientzako bekak (lau hilabetez).
- hamar ikasleentzako bekak (hila-bete bat).

Izan ere, Heziketa-ziklo gehiengotik, ikasleek 400 orduko lan praktikak egin behar dituzte. Orain dela bi urtera arte, Administrazioa eta Finantzako ikasleek inguruko enpresetan egiten zituzten praktikak, behar zituzten ordu kopuruak betez; Guascor, Egurko, Lagun Artea, Urpemak, Oraia, Asesoria Zumaia, Gesem Asesoria, Auto-Iraeta, Migsa, Obe Hettich, Swissflex, Danona, Ikasi, Danobat, Zumaiaiko Udala, José Ezpeleta, Kirolzer... bezalako enpre-



setan egiten zituzten praktikak. Baina Leonardo da Vinci programari esker egoera aldatu egin da, atzerriara joaten diren hamar ikasle horiek lan-praktiken herena, hau da, hilabete bat, atzerrian egiteko aukera dute, eta gainontzekoa, Zumaia eta inguruko enpresetan egiten dute.

Orain arte burututako proiektuetan Torquay-ra joan izan dira. Torquay Ingalaterrako hegoaldeko kostan dagoen hiri zabal bat da, Torbayko badian, Plymouth-en inguruan. Han, enpresetan administratza arloko lanak egin dituzte, eta hango familietan egon dira.

Ikasturte honetarako nora joan, oraindik erabaki gabe dago, eskaintza desberdinak izan dituzte: Irlanda, Eskozia eta Ingalaterrakoak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Institutura joan edo 943860809 / 943862320 telefonoetara deitu.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunetan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



Martxan da araztegia

Hala ere, oraindik ez ditu egin beharreko lan guztiak egingo

Irailaren bukaera aldera jarri zuten lanean hainbeste desiraturako araztegia. Zati bat bakarrik izango da, momentuz, lanean. Egurko enpresaren ondoan dagoen eraikina osotasunean martxan jartzeko, beste lan batzuk egin beharko dituzte. Esaterako, araztegiara doazen hodiak konpondu, araztegiaren ur gazirik sar ez dadin. Nonbait, zikinkeriak jaten dituzten zomorroak ur gaziarekin hil egiten dira. Herriko zenbait tokitan, hodi horiek mugituta daudenez, ur gazia sartzen zaie. Konponketa horiek egiteko, lurrik ez dutela jasoko esan digute Udalean.

Araztegi guztia lanean noiz izango den galdetuta, ez dakitela aipatu digute. Zenbat eta azkarrago izan hobe, azkenaldian urak behera egiten duenean sekulako kiratsa egoten da-eta.



Inpernupeko langa kendu dute

Kotxeak ez pasatzeko poste bat jarri dute



Urte askoan Inpernupeko paisaiaren osagai izan den langa ez dago. Zahartuta zegoela-eta, poste batek ordezkatuko du hemendik aurrera. Langa zaharrak badu bere historia. Inpernupen zabortegia zegoenean, edozein joaten omen zen zakarrak han uztera. Hori galarazteko jarri zuten langa. Orain posteak bete beharko du langak utzitako hutsunea.

Bestalde, orain urtebete edo, aipatu genizuen Inpernuperako egitasmo bat zegoela. Txukundu, eta beste itxura bat eman nahi ziotela kontatu genuen. Oraindik asmo hori badute, baina Espainiako Gobernuari dagokion eskumena da, eta Madril aldetik ez dute dirurik ematen. Agindu agintzen omen dute, baina Zumaira zentimorik ere ez dute bidali. Zain egon beharko dugu...

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAITZ HORTZ KLINIKA

Plazola de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74

Garrote
Rafael Irarungdi Elgoibar

INPERNUPE ELKARTEA

Erribera kalea Tel. 943 861523

Kresala
— edergintza —

Amaiako Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Kalari

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517

KABI
TABERNA - ZUMAITZ

Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, 2/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

Onddoak, txanpinoiak, esne gorriak...

Perretxikotara joateko garaia da. Udazkenarekin batera abiatzen da jendea jaki preziatu horien bila. Zumaia asko joaten da, lehen baino dezente gehiago

Ohitura kontua omen da urte sasoi honetan perretxikotara joatea. Beno, ohitura eta hezetasun kontua. Hainbeste itotzen gaituen hezetasunak lotura estua baitu perretxikoekin. Urte guztian hezetasuna egonez gero, jaki gozo horiek edozein garaitan egoten omen dira. Hala ere, garai hau izaten da perretxikotara jende gehien joaten den urte sasoi. Motiboak izango dituzte...

Hemen, Zumaia inguruan, ez omen dago aukera handirik. Perretxikoak pagadietan eta hariztietan ateratzen dira. Zumaia inguruan horrelako zuhaitz gutxi dagoenez, hobe beste lekuren batera joatea. Horrek ez du esan nahi hemen inguruan batere perretxikorik ez dagoenik. Pinudia nahi beste daukagu bazter hauetan, eta zuhaitz horietatik hurbil perretxikoak izaten dira: batez ere, txanpinoiak eta esne gorriak.

Perretxikoetan ere batzuk jateko modukoak dira, baina beste batzuk ez. Hilgarriak ere badaude txarrak direnen multzoan. Laguntze aldera, hauxe da jangarriak direnetako batzuen zerrenda: kuletoak, onddoak, zizak, gibel urdinak... Txarrak eta hilgarriak direnetatik pare hau nabarmendu: kamino bazte-



rretako txanpinoiak, eta batez ere, amanita phalloides ospetsuak.

Perretxiko Astea

Aurten ere, urtero bezala, Zumaia Natur Taldeak Perretxiko Astea antolatzeko asmoa du. Dagoeneko nahiko zehaztuta daukate egitaraua. Urriko azkeneko asteburuan izango da, 24an, 25ean eta 26an. Aurreneko egunean, 24an, ostiralean, hitzaldia izango da. Hurrengo egunean, larunbat goizean, irteera egingo dute perretxikoak hartzeko asmoarekin. Eta igandean, bezperan bildutakoak erakutsiko dituzte. Lekuak eta orduak zehazteko dituzte, oraindik.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Kanpokoa bukatuta, barrua betetzea falta

Interpretazio Zentroa izango dena 2004ko maiatzerako ireki nahi dute

Urte askoan animalien hiltegia izan zenak bestelako itxura izango du las-ter. Kanpoko lanak ia bukatuta dituzte, eta orain barrua behar bezala txu-kuntzea geratzen zaie.



Interpretazio Zentroa zer da?

Gauza jakina da Interpretazio Zen-troa izango dela antzina hiltegia izan zena. Baina zer arraio da hori? Muse-oen antza izan dezakeen arren, nahi-ko desberdinak dira. Museoetara era-kusgai dauden objektuak ikustera



joaten gara. Interpretazio Zentroetan erakusgaiak ez dira objektuak. Ingu-ruko paisaia da erakusten zaiguna. Hori guztia interpretatzeko lagunga-rrri izango diren datuak erakusten dira. Nola? Diapositiben bidez, bideoak erabiliz, maketen bitartez...

Zumaiaren kasuan bada zer ikusia eta zer aztertua. Kantabrikoan ohikoa den ekosistema izateaz gain, gure herriak badu berezitasun bat: flysh-ak. Hori dena hobeto ezagutzen lagunduko digu Interpretazio Zentro-ak. Gure inguruak dituen sekretu guz-tiak ezagutzeko aukera ere emango digu. Era berean, natura hobeto erres-

petatzen ikasteko ere lagungarria izango zaigu.

Eraikinaren egitura

Beheko solairuaz gain, beste bat izan-go du. Hemeroteka, bulegoak, ikus-entzunezkoak emango dituzten gela, maketak ikusgai izango dituen are-toa...Hori dena izango du Interpreta-zio Zentroak.

Oraindik datorren urteko maiatze-ra arte itxaron beharko dugu egitas-moa bukatuta ikusteko. Barrua behar bezala prestatzen bederatzi bat hila-bete beharko dituztela esan digute Udalean.



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Ur azpiko erakusketa Itoitzen

Besteak beste, Ander Hormazuri, Keixeta eta Iñaki Olazabal zumaierren koadroak daude erakusketa bitxi honetan

Aspaldian denon ahotan dabil Itoizko urtegia. Gauza jakina da, urtegia egiteko inguruko herriak bota eta desagerrarazten ari direla. Herri horietako bat Artozki da. Edo zen, hobe esateko. Dagoeneko eraitsi dute makinek. Zumeta, Gorriti eta beste artista batzuen ekimenez, koadroak eta artelanak Artozkiko elizan ipini zituzten erakusketa moduan. Irailaren 25ean izan zen hori. Handik lauzpabost egunera, makinak herrian sartu eta dena eraitsi zuten. Baita koadroak ere. Orain, urte-



gia betetzen dutenean, ur azpian izango dira artelan horiek denak. Erakusketak bitxia, inondik ere.



Zumaiak bete du helburua Berriaren aldeko kanpainan

Akzio bidez 27.000 euro biltzea zen erronka eta irailko lehen astean lortu zen



Gainditu ezineko erronka ziru-dien maiatzean Zumaian 27.000 euro biltzea Berriaren aldeko kanpainan, baina herriaren erantzuna paregabea izan da eta hiruzpalau hilabetetan gauzatu da urte osorako aurreikusitakoa. Zumaian egindako akziodun gehien-gehienak herritar xumeak izan dira, eta

guztiei eskerrak eman nahi zaizkie Berriaren Aldeko Zumaia Herri Batzordetik; baita akzioak erosi dituzten negozio txiki eta enpresei. Eskerrak baita Berriaren alde hainbat ekitaldi antolatzen lagundu duzuen guztioi, eta Zumaia Udalari emandako laguntzagatik.

Zumaian helburua bete den arren, oraindik akzioak eskuratzeko aukera dago, Berria Berri kanpainak oraindik ez baititu bildu beharrezkoak diren bost milioi euroak. Akzioak erosteko interesa izanez gero, herri batzordeko kideekin jar zaitezke harremanetan (Aizpurua liburutendan), edo bestela Berriara deitu (943304030).

Hamar urte badira

1993ko irailaren 26an hil zen Xabier Galparsoro, Espainiako poliziek emandako jipoien eraginez

Atzo goizean gertatu balitz bezala gogoratzen dugu, baina dagoeneko hamar urte pasa dira. Bizpahiru egun lehenago atxilotu zuen Espainiako poliziak. Bilboko Indautxu auzoko polizi etxera eraman zuten, eta han latz torturatu ondoren, pare bat egun beranduago hil zen. Familiak polizien kontrako denuntzia jarri zuen. Udala ere aurkeztu zen akusazio bezala. Epaiketa haren epaiak, poliziak inabilitatu zituen. Haiek helegitea jarri, eta iaz kaleratutako epaiak, lehen epaiketako zigorra bigundu zien. Eta horretan bukatu zen, beste askotan bezala, epaitegietako bidea.



Gorka Iribar eta Jon Maia Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Irailaren 26an hasi eta abenduaren 14an bukatuko da. Lehen saioan, Aian, aritu zen Gorka. Jonek final erdian etorriko da

Lehen fasea bialaraka antolatu dute. Lortutako puntuazioaren arabera, hogeita sei bertsolari sailkatuko dira final laurdenetara. Bialara bakoitzetik bertsolari kopuru jakin bat pasako da hurrengo fasera. Hernanialdetik eta Kostatik seina bertsolari sailkatuko dira; Leintz- Urolatik bost; eta Goieritik lau. Hogeita seiko multzoa osatzeko, gainontzekoetatik puntuazio altuena duten bost bertsolari pasako dira. Final laurdenetan beste lau bertsolari izango dituzte zain. Lehen faseko aurreneko saioan, Txapelketari hasiera eman zionean, hain zuzen, aritu zen Gorka Iribar gaztea. Lehenengo aldiz parte hartzen zuen Txapelketa nagusi batean. Oso urduri

zegoela aitortu digu. Jende ugari bildu zen Aiako Kultur Etxean. Esperientzia oso ona izan zela dio. Saioa bukatuta, epaileek 240 puntu eman zizkieten. Badaki ez dela hurrengo fasera sailkatuko. Kantatu aurretik ere bazekien hori lortzea oso zaila izango zela. Batez ere, Txapelketak ezagutzeko, eta mundu horretan sartzeko eman zuen izena. Gustatu zaio, nonbait, eta hurrengo Txapelketetan ere aterako dela baieztatu digu.

Hurrengo faseak


Final laurdenetan, guztira hogeita hamar bertsolari ariko dira. Horietatik 13 onenak final erdian sailkatuko dira, eta fase horretan beste bost bertsolari gehituko zaizkie.

Boskote horretan dago Jon Maia. Hemezortziko talde horietatik zortzi onenak sailkatuko dira abenduaren 14an Irungo Artalekun izango den final handira.

Final laurdenetako saio bat Zumaiari

Azaroaren 2an, igandean,

arratsaldeko bostetan, Aita Mari aretoan jokatu dute final laurdenetako kanporaketa bat. Bertan kantatuko duen bertsolari baten izena ezagutzen dugu, dagoeneko. Final laurdenetan zuzenean sartzen diren laukotetik, Arkaitz Goikoetxea izango da gure herrian izango dena. Gainontzeko bostak nortzuk izango diren lehen fasea bukatuta ezagutuko dugu.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Basadi Auzategia, 9-A 2-B



Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Merezitako omenaldia Erramun Manterola gudariari

Euskal Itsas Armadan zumaia asko ibili ziren. Bizirik dagoen gudari bakarrak, Erramunek, herritar askoren esker ona jaso zuen

Omenaldi xumea izan zen. Xumea bezain hunkigarria. Jende asko bildu zen Oxforden. Euskal Itsas Armadari buruz Erkibe Kultur Taldeak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako erakusketaren hasiera ekitaldian omendu zuten Erramun. Gerra bizi izan zutenek, garai hartako oroitzapen gogorak izango zituzten gogoan. Bizi ez zutenentzat, berriz, orduko historia, gure historia, ezagutzen hasteko aukera ona.



Leihoa omen zen

Parroki ondoko etxean azaldutako zuloa, orain bostehun bat urteko etxe baten arrastoa da

Aurreko zenbakian, irudiren bat gordeko ote zuen esan genizuen. Kale. Nonbait, orain bostehun bat urteko etxe baten leihoa da. XV. edo XVI. mendekoa omen da. Aztarna ederra. Gordezekoa. Tartean-tartean azaltzen dira horrelakoak. Gure historiaren beste zati bat.



Bigarrenean, balekoa



Aquanaut ontzia irailaren 26an uretaratu zuten, oraingoan arazorik gabe

Lehenbiziko ahaleginean, arazo batzuk tarteko, ezin izan zuten uretaratu. Bigarrenean, berriz, bai. Irailaren 26ko arratsaldean, 17:30ak aldera, ezagutu zuen ura Aquanaut-ek. Erraz asko joan zen karrotik behera. Aurreko ahaleginean baino jende gutxiago bildu bazen ere, herrian bazen ikusminik. Kanpoko jendea ere hurbildu zen botadura ikustera. Orain, ontzia behar bezala prestatuko dute. Behin hori eginda, lanerako prest izango da.

“Dezente handitu da nahigabe hasi zena”

“Karidadeko Benta” izenarekin atera du lehen diskoa zumaiar taldeak. Garai bateko Karidadeko Bentan Pello Errota eta Txirrita biltzen ziren, besteak beste. Oraingoan, Maia, Aran, Tolo, Mantxi, Imanol eta Domentx. Garaiak aldatu dira, baina orduko espiritua bizirik da oraindik

Entsegu baten aurretik harrapatu ditugu. Ilusioz daude. Gustura. Pozik. Bide luze baten lehen pausoak ematen ari dira. Karidadeko Benta honetan ere giro jatorra dago.

Nola sortu zineten?

Maia: Historia luzea da. “Hitzetik Hortzera” bertso programatik bertso batzuk musikatzeko eskatu zidaten. Aran eta beste batzuk perkusioarekin eta ibiltzen zirenez, haiek lagundu zidaten musika jartzen. Zerbait desberdina egin genuen. Hor hasi zen dena, bat ere uste gabe. Pixkanaka-pixkanaka handitzen joan gara, eta dezente handitu da nahigabe hasi zena.

Karidadeko Benta izenarekin bataiatu duzue nahigabe sortutako taldea. Nondik dator izen hori?

Mantxi: Bere garaian, Txirrita eta

beste bertsolari batzuk biltzen ziren bentak izen hori zuen: Karidadeko Benta.

Aran: Bada bertso sorta bat Karidadeko Benta izena duena.

Maia: Pello Errotaren bertsoak dira, eta bertan kontatzen du nola gau batean sei bertsolari bildu ziren Karidadeko Bentan. Jai giroa, mozkor giroa, bertso giroa nabarmen-tzen ditu. Deigarria egin zitzaigun izena. Sugerentea.

Disko etxe batekin diskoa ateratzen duen lehen talde zumaiaarra zarete. Zer esan nahi du horrek zuentzat?

Aran: Gure aurretik ez al da diskoa atera duen talderik izan?

Imanol: Talderik ez. Bai, akaso, beste batzuekin diskoa atera duten zumaiaarrak. Maketa atera dutenak izan dira, baina diskorik ez.

Maia: Diskoa ateratzen aurreneko talde zumaiaarra gineneko datua ez genekien. Hori horrela izanda, ea gure atzetik beste batzuek animatzen diren.

Zuen estreinako disko honekin zer transmititu nahi duzue?

Maia: Aldez aurretik ez dugu pentsatu diskoaren forma zehatz batean. Ez dugu pentsatu diskoa nolakoa izango den. Bidean sortzen joan diren kantuak dira, kantu desberdinak. Taldeak badu atmosfera orokor bat, bere estiloa dauka, baina ez dugu helburu zehatz batekin egin. Kantuz kantu egiten joan da gure estiloa.

Jendearengandik nolako harrera espero duzue?

Imanol: Orain arte oso harrera izan dugu. Ematen du jendeari gustatzen zaiola egiten duguna.

Mantxi: Jende klase ezberdina izan dugu kontzertuetan: herriko jendia, hiritarrak, zaharrak, gazteak, haurrak...

Maia: Konturatu gara gure musika edozein publikorengana heldu daitekeela. Ez da batere sektoriala. Gainera, entzuteko ez da zaila. Euskal Herrian egiten den musika estiloen antzik ez du, baina entzuten erraza da. Ezin da

musika genero konkretu batean kokatu, eta jende asko hurbildu zaigu kontzertuetara. Oso harrera ona izan dugu.

Genero konkretu batean kokatu ez arren, non edo norekin identifikatzen zarete?

Maia: Nolabait esateagatik, komiki-musika da gurea. Istoriotxoak dira. Sailkatu, ezin da sailkatu.

Imanol: Kantuak batzen dituen bertsoak dira. Oinarria bertsoa da. Melodia batzuekin jantzitako bertsoak dira gure kantak. Ez da genero konkretu bat. Ateratzen zaigun bezala, eta gustatzen zaigun eran egiten dugu.

Zeri buruzkoak dira kantuen letrak? Zer bilatu nahi izan duzue?

Maia: Istoriotxoak dira, pertsonaia kuriosoen istorioak, burutazio batzuk ere badira tartean...Kantu bakoitza mundutxo bat da. Ez dira mezu handiko kantuak. Jarrera ideologiko bat nabari da. Tradizioa gustatzen zaigu, pertsonaia kuriosoen bizimodua. Hori, gaur egungo musikan bada ideologia bat.

Aurtengo Bertso Egunean kantatzeko aukera izan duzue. Zumaia askok orduan izan zuten zuen berri. Nola bizi izan zenuten egun hura?

Aran: Ez dakit nola esan, baina ondo.

Mantxi: Handia izan zen. Errespetua ematen zuen. Jende asko zegoen, telebistako kamerak...Gainera, ez zen ohiko kontzertu bat izan. Kanta bat jo, eta eszenatokian zain egon behar genuen.

Maia: Guretzat proba antzekoa izan zen. Kursala jendez lepo, 2.000 pertsona baino gehiago, telebistako kamerak, diskorik atera ez duen taldea...Errespetu handia ematen zuen, baina onik atera ginen. Orduan konturatu ginen gauzak ondo eta tajuz egiteko gai garela. Handik bueltan, jende askok esan zigun ikusi gintuela. Eskaparete

"Melodia batzuekin jantzitako bertsoak dira gure kantak"



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



handia izan zen guretzat. Beldurrez joan, baina indartuta atera ginen.

Berez, diskoak maiatzean izan behar zuen kalean. Zer dela eta atzerapena?

Aran: Lehenengo aldia izanda, arazo txiki batzuk izan ditugu. Batez ere, diseinuarekin. Grabazioa ere hiru egunetan egitea pentsatzen zen, baina gehixeago kostatzen zitzaigun.

Grabazioa aipatuta, nolako esperientzia izan da?

Maia: Lan handikoa. Gozatu gutxi, eta lan asko egin dugu diskoaren grabazioan. Gasteizeraino joan behar

genuen. Askotan denok batera egon behar genuen estudioan, eta aurrez egindako estrategiarik ez genuenez, nahiko gogorra egin zaigu. Eta luzea.

Zenbat iraun du grabazioak?

Mantxi: Oporrek ere tartean harrapatu gaituzte. Ondorioz, ezin izan dugu dena jarraian egin.

Imanol: Grabazio egunak, berez, hamar bat izan dira.

Grabazioan bizi izandako anekdotaren bat?

Mantxi: Teknikoarekin nahiko borroka egin behar izan dugu. Egoskor xamarra zen. Bestalde, Iosu Zabala

"Bertso Egunean konturatu ginen gauzak ondo eta tajuz egiteko gai garela"



Hertzainak-ekoak kolaboratu du gurekin. Eskusoinuarekin kanta bat moldatu digu, eta oso polita izan da.

Imanol: Iosu grabatzen ikustea ikusgarria izan da..

Behin diskoa grabatuta, taldean berrikuntza bat izan duzue.

Maia: Grabazioaren ondoren Domentx etorri zaigu taldera. Moldatze tarteak izan da. Bai berarentzat, eta baita guretzat ere. Mantxi kanpora doanez, Domentxek jo beharko ditu Mantxik jotzen zituen instrumentu batzuk

Udan zehar, kontzertu batzuk eman dituzue. Zer moduzko esperientzia?

Imanol: Ez gara asko ibili. Hiru kontzertu bakarrik eman ditugu.

Aran: Niretzat eskurtsio bat da. Kontzertua jo behar duzun herria ezagutzeko aukera ematen dizu.

Mantxi: Gainera, sorpresa bat da. Eszenatokia, publikoa... nolakoak izango diren ez dakizu .

Aran: Kontzertuen aurretik oso ondo afaltzen dugula ere esan beharra dago.

Maia: Irteeretan oso ondo pasatzen dugu. Aranek esan duen bezala, ederki afaltzen dugu. Gero, kontzertuetan egiten ditugu akats txiki batzuk, baina jendearen harrera oso ona izaten da. Herriz herri oso ondo moldatzen gara.

Galdera orokor bat orain. Nola ikusten duzue Euskal Herriko musikaren egoera?

Mantxi: Askok ez dugu jarraitzen, egia esan. Gehiago jarraitzen dugu kanpoko musika.

Maia: Gure diskoan garbi ikusten da atzerriko musiken eragina hemengoena baino handiagoa dela. Egoera txarra da. Musikari begiratuta ez, baina Euskal Herriko musikaren industria gaizki dago. Oso jende gutxi joaten da kontzertuetara. Salmentek ere behera egin dute, asko jaitsi dira.

Mantxi: Kontzertuak jotzeko ere oso leku gutxi daude. Gure alde daukaguna da, euskaraz abesteaz gain, bertso-larien zirkuituan pixkat sartu garela.

Gure irakurleei diskoren bat gomendatzeko eskatu behar dizuegu.

Imanol: Niri "Bide Ertzean" taldearen azken lana asko gustatu zait.

Mantxi: Nik kantari bat gomendatuko diet, egiptoarra bera: Hamsa El Din.

Maia: Andres Calamaroren edozein disko. Horixe nire proposamena.

Aran: Hainbeste gizonezko gomendatuta, nik emakume baten lanak proposatuko dizkiet, Cesarea Evorarenak.

Zuen diskoa erosteko pare bat arrazoi?

Maia: Herrikoak garela, eta nortasun bereziko taldea dela gurea. Diskoa erosten ez duenak, ez du ezer antzekorik bilatuko merkatuan.

Elkarriketa bukatzeko, nahi duzuen gehitzeko aukera daukazue.

Maia: Hauxe bakarrik: Zumaian diskoa gabonak pasata edo aurkeztuko dugula, Mantxi kanpotik etortzen denean.

KARIDADEKO BENTA

Inaxio Tolosa, Jon Maia,

Arantxa Santamaria, Imanol Manterola,

Jon Manzisidor eta Domentx dira

Karidadeko Benta.



EKUADOR ETA BOLIVIA



POBREZIAREN GATIBU

Bi zumaia izan dira aurtengo udan bi herrialde horietan. Igor Albizu lehen aldiz izan da Ekuadorren. Ramon Gurrutxuga, berriz, urtero joaten da Boliviara. Asmo desberdinak eraman zituzten pobrezia ondo lotuta dituen Hego Amerikako bi herrialdeetara.

Ekuador: aberats pobrea

IGOR ALBIZU zumaiarra, Jaione neskalagunarekin Ekuadorren izan da, udan, hilabete batez. Bertako hizkuntzak, ohiturak, eta bizimoduak ezagutzeko aukera izan dute. Guztiaren gainetik hauxe nabarmen-tzen dute: herri aberatsa da, baina ezin aberastasun horri etekinik atera.

Igorrek esperientzia badu horrelako bidaietan. Iaz, beste hiru lagunekin batera Nikaraguan izan zen. Aurten, aldatzeko asmoarekin, Jaione eta biak Ekuadorren izan dira. Batetik bestera alde handirik ez dagoela esan digu Igorrek. Akaso, Nikaraguako jendea bizia-goia dela dio, baina bi herrialdeok badute batzen dituen ezaugarri bat: pobrezia.

Andeetako jendeak eta bizimoduak erakarrita erabaki zuten Ekuadorrera joatea. Motxilak hartu, eta aire. Beraien kasa, tokiak ezagutzeko asmoarekin joan ziren. “Turista moduan joan ginen” esaten du Igorrek. Mapak eskuan hartuta, ahal zuten guztia eza-gutu nahi zuten. Ekuadorko mapa ireki eta berehala ohartzen da bat hiru eremu dituela. Hiru partetan banatuta dago. “Sierra, Oriente, eta Kosta dira hiru parte horiek” aipatu digu Igorrek solasaldia hasi orduko.

Kosta

Igor eta Jaione kostara heldu ziren lehendabizi. Kostako hiri nagusia Guayaquil da. Harritu zituen lehenbiziko gauza hortxe topatu zuten. Aurreneko kontrastea bilatu zuten hiri handi horretan. Pobrezia eta aberastasuna elkarren ondoan. “Malekoi handi bat eraiki berri dute, baina ondoan daude jende xehearen txabolak. Nonbait, kolonbiarrak sartu dira Guayaquilen dirua zuritzera, eta haien diruarekin



egina da aberatsen pasealeku den malekoia” azaldu digu Igorrek.

Sierra

Kostatik Sierra aldera joateko autobusa hartu zuen gure bikoteak. Sierran dago Quito hiriburua. Igorrek esan digunez, bertakoek askotan erabiltzen dute autobusa. Arrazoiak argia: kotxea izateko dirurik ez dute. Gainera, autobusean ibiltzea oso merkea da. Hori bai, zahar samarrak dira autobus gehienak, baina “gustura ibiltzeko aukera ematen dizute” gehitu du Igorrek.

Trena ere badute Sierra aldera joateko. Panamerikarra deitzen diote tren horri. Garai batean, Guayaquildik Quitoraino zihoan, baina orain, turismorako bakarrik erabiltzen dute. Gaur egun, ez du bide guztia egiten, zati bat bakarrik, baizik. “Oso berezia da. 800 metroko altuera igotzen du zati txiki batean, bira asko emanda. Oso poliki joaten da. Gainera, teilatuan joaten zara eserita. Izugarritzko

paisaiak ikusteko aukera ematen dizu” dio Igorrek, tren hartan igarotako une ederrak gogoan. Kostan baino hotz handiagoa egiten duela ere aipatu digu. Pentsa, Quito 2.800 metrora dago.

Sierran ere, Kostan bezalaxe, pobrezia nonahi aurki daiteke. Etxeak oso eskasak dira. Hango bizimoduari buruz galdetuta, hauxe Igorren erantzuna: “hilean 100-120 dolar irabazten dituzte. Oso gutxi da hori. Diru horrekin ezin ba ezer askorik egin”.

Oriente

Sierra utzi, eta Ekuadorko hirugarren eremua ezagutzera jo zuten Igorrek eta Jaione. Oihana da nagusi Oriente. Igorren Donostiako lagun bat, ingeniaria bera, bertan dago, eta haren bitartez joan ziren oihan aldera. Donostiako lagunak enpresak sortzen dihardu. “Lurra oso aberatsa dute, baina lurretik ateratako produktuak saltzeko mentaliterik ez dute. Ez dakite



Boterean daudenen ustelkeria ohikoa da.

dirua irabazten” esaten du Igorrek. Orain, oilasko haztegi bat egin dute, eta hor dabilta. Kooperatiba antzekoa omen da. Donostiako lagunak eta beste batzuek turismoa ere bultzatu nahi dute paraje honetan.

Oso pobreak dira Orienten. Gainera, botikaren bat erosi behar badute, beraiek ordaindu behar dutela kontatu digu Igorrek.

Orienten komunitateetan bizi dira. Batetik bestera joateko oinez ibiltzen dira. Dena lokaztuta dagoenez, atera kontuak bertakoak nola ibiltzen diren. “Ohituta daude, hala ere” esaten du Igorrek. Komunitate batetik beste batera joateko, zenbait kasutan, zazpi orduko bidea egin behar izaten dute.

Oihaneke tribuak ikusi zituzten galdetuta, ezetz esan digu. Nonbait, oihan barrura sartu behar da tribu horiek ikusteko.

Hizkuntzak

Gaztelera da nagusi Ekuadorren. Indigenek ktxua eta kitxua ere hitz egiten dituzte, baina guztien gainetik gaztelera dago. Ktxueraz Sierran hitz egiten dute, batez ere, Panamari-karra deritzon trenaren ibilbidetik kanpo. Kitxueraz, berriz, Orienten mintzatzen dira. Igorrek, Euskal Herrian euskarak bizi duen egoeraren antza hartu die Ekuadorko indigenen hizkuntzei, “bigarren mailako hizkuntzak dira. Nagusi gaztelera da. Umeek oihanean kitxueraz egiten dute, baina gero, unibertsitatean gaz-

telera bakarrik dute. Hemengo egoeraren antza handia du”.

Jantziak

Ekuadorko indigenen beste bereizgarri bat arropa da. Oso bitxiak direla dio Igorrek. Batez ere, emakumeenak nabarmentzen ditu, “arroparen koloreak oso biziak dira. Deigarriak dira, oso”.

Korruptzioa eta ustelkeria

Ekuador, zoritxarrez, boterean daudene hainbestetan egiten duten ustelkeriarengandik ez dago salbu. Ohikoa da. Nonahi ikusten omen da. “Boterearen arlo eta maila guztietan agerikoa da korruptzioa: gobernuan, polizian...” aipatzen du Igorrek. Hara joan baino lehen, entzun zuten indigenak ustelkeriari aurre egiten ari ote ziren edo. Baina, hara iritsi eta baieztapen hori berehala gezurtatu zuten. “Etsita daude bertakoak. Ustelkerian aritzea normalizat hartzen dute. Egunerokoa aurrera ateratzen nahiko lan badute” dio Igorrek, bera ere etsi samartuta.

Hilabete txistu batean pasa zitzairen Igorri eta Jaioneri. Handik bueltan, Ekuadorko berriak beste era batera jarraitzen dituztela dio Igorrek. Horrelako bidaiak egiten dituztenei horixe gertatzen zaie. Hango egoerarekin kezkatuta edo, asko eta asko berriz bueltatzen dira. Batzuk denboraldi motzerako. Beste batzuk, han gelditzeko. Igorrek eta Jaionek datorren urterako planik ez dute oraindik...



Bolivia, lehertzeko zorrian

Ramon Gurrutxuga aurtengoarekin zazpi aldiz izan da Bolivian. Hango kaleko umeei laguntzera joan da azken hiru urteetan. Urtetik urtera egoera okerrago dagoela dio

Orain zazpi urte hasi zen Ramon eta Boliviaren arteko lotura. Ustekabean. Ramonek bazuen behar handiena dutenei laguntzeko gogoia. Hasiera batean Indiara joatea pentsatu zuen. Hizkuntzaren arazoagatik beste herrialde batera joateko gomendatu zioten. Hortxe azaldu zen Bolivia.

Zazpi urte hauetan, denetik egin du Ramonek Amerikako herrialde pobreenetakoa den Bolivian. “Hasiera-hasieratik kaleko umeei lan egin nahi nuen, baina lehen bi urteetan hezitzaile lanetan aritu nintzen” laburbiltzen ditu Ramonek han igarotako lehen bi urteak. Gustura ibili bazen ere, azken hiru urteetan berak gogokoen zuena egiteko aukera izan du: kaleko umeei lan egin.

Santa Cruz hirian izan zen Ramon kaleko umeei. Azken hiru urteetan hiri handi horretan izan dela esan digu. Milioia eta laurehun mila biztanle ditu Santa Cruzek. Itsasoko mailatik 300 bat metrora dago, eta klima aldetik nahiko berezia omen da, “oraintxe arropa soberan izaten duzu, eta hurrengo egunean, berriz, hotzez akabatzen zaude” deskribatzen digu Ramonek Santa Cruzeko klima.

Kaputxinoek duten barnetegi batean izan da aurtengo udan, hilabete batez. Aurreko urteetan bi hilabeterako ere joan izan da, eta beste behin, lanean eszedentzia hartuta, urtebetez izan zen Bolivian. Baina aurten, esan bezala, hilabetez egon da Santa Cruzen.

Barnetegian guztira 160 ume daude,



zazpi eta hamabost urte bitartekoak, eta denen egoera nahiko negargarria da. Batzuk umezurtzak dira, eta familiarik ere ez dute. Beste batzuek ama bakarrik dute. Barnetegian ikasi egiten dute. Bi apaiz, lau zapabost seminarista, eta hezitzaileak dituzte beraiek zaintzeko.

Ramonen egitekoak

Ramonek bi lan egiten zituen. Goizetan erizaindegian izaten zen, barnetegiko erizain bakarrari laguntzen. Umeei kolpeak –eta sendatzen ibiltzen zen. Arratsaldeetan, aldiz, umeei kirola egiten. “Horixe gustatu izan zait beti, eta hango umeei ere horretan ibiltzen naiz” dio Ramonek. Batez ere, futbola egiten zutela esan digu. Bolivian futbola da kirolekin errege. Tarte-ka beisbola ere lantzen zuten, hala ere. Umeak zorutzen egoten dira kirola egiterakoan. “Barnetegian ikasi eta ikasi besterik ez dute egiten. Hori ondo

dago, baina tarteka beste zerbait ere egin behar da” esaten du Ramonek, barnetegiko agintariekin gai horretaz izaten zituen eztabaidak gogoratzen dituen bitartean. Nonbait, ikasteko orduak kentzen zizkietela-eta, kexu ziren hango agintariak. Umeak, ez. Umeak desiratzen kirola egiteko. Gainera, Ramonek txapelketak antolatzen zizkien: futbitokoa, zazpi jokalariz osatutako taldeen artekoa, futbolekoa... “Horixe gustatzen zaie umeei. Jolasteko amorratzen egoten dira, zerbait desberdina egiteko irrikaz”, borobiltzen du Ramonek.

Hezitzaileak eta umeak: bi jarrera ezberdin

Barnetegian umeen ardura dutenak hezitzaileak dira. Nahiko bereziak direla dio Ramonek, “bertakoak izaten dira. Izugarritzko patxada dute, eta askotan umeak ez dituzte behar bezala zaintzen”.

Zenbaitetan, Ramonek eta hemendik joandakoez eztabaida handi samarrak izaten zituzten hezitzaileekin. Haiek ere hemengoak ez dituzte ondo hartzen. “Gu haiei lana kentzera goazela esaten digute” aipatu digu Ramonek.

Umeen jarrera guztiz kontrakoa da. Oso ondo hartzen dute hemendik joandakoa. “Oso ume onak dira. Kanean uzten dituzte, bakarrik, inor gabe. Esandakoa berehala betetzen dute, gainera” dio Ramonek hango umeak gogoan. Ondorengo esaldian ederki laburbiltzen digu Ramonek hango umeekin nolako harremana duen: “guk haiei baino gehiago ematen digute haiek guri”

Umeak poztearekin batera, norbera ere pozik

Hara joanda zer bilatzen duen galdetuta, berehala erantzun digu Ramonek. Ez du zalantza arrastorik, “nire bizitza betetzen dute. Hemen lanera joan, eta lanetik etxera. Haiekin egonda, barrua betetzen zait”

Ilusioa ematera joaten dela esaten digu. Lehen dirua ematen zien, baina denborarekin hori nahikoa ez zela ikusita, bertara joan zen. Lana oso gogorra dela dio, baina aldi berean, polita. Joatea merezi duela esaten digu.

Boliviako egoera

Urtetik urtera okerrera doa. Herritarrak gero eta pobregoak dira. Ez dute ezer. Lehen gutxi bazuten, orain gutxiago. Amerikako Estatu Batuen itzala ikusten

Guk haiei baino gehiago ematen digute haiek guri

du egoera horren atzean Ramonek, “dena hartzen ari dira: gasa, petrolio...Orain gasa kendu nahi diete. Beraiek 1.400 milioi dolar irabaziko lituzkete, eta Boliviak 70 milioi. Gainera, boliviarrak bizimodua aurrera ateratzeko hain beharrezkoa duten koka orriak kendu nahi dizkiete, zertarako eta fruta sartzeko. Frutarekin ezer ez dute irabaziko boliviarrak.” Egoera horren aurrean, Boliviako biztanleen haserre handitzen ari da. Ramonen ustez, berandu baino lehen lehertuko da dena, eta azkenean gerra zibila izango da.

Ekuadorren bezala, ustelkeria ere nonahi da Bolivian. “Gobernua eta boterea dutenak erabat ustelduta daude” dio Ramonek. Horrek herritarren haserre gehiago handitzen du, “jendeak nahiago du gerran hil horrela bizi baino” gehitzen du.

Kanpoko eragin txarren eta barruko ustelkeriez gain, bertakoen mentalitateak ere egoera horretan eraginik baduela uste du Ramonek. Dena errazegi uzten dute, “Jainkoak lagunduko digu” lasai asko esanda. “Estatu Batuak lapurretan ari zaie, baina utzi egiten diete” dio Ramonek, etsita. Ekuadorkoen antzera,



saltzeko ohiturarik ez dute. Lurrak oso aberatsak dira, euria ere badute, baina lurretik ateratakoa ez dute saltzen. Ederki azaltzen du Ramonen kontakizun honek egoera hori, “Cochabamban trukatatu egiten dituzte gauzak. Patatak landatu dituen batek, arroparen truke ematen dizkio patatak beste bati”.

Hizkuntzak eta familiak

Gaztelera da nagusi Bolivian. Cochabamba ketxueraz hitz egiten dute, baina gainontzeko lurraldeetan ez. Gizarteari beste begiradaxo bat emanda, familien egoera nabarmentzen digu

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ramonek. Lehen aldiz joan zenean, orain zazpi urte, horrexek harritu zuen gehien. Ez dago familia girorik. Ez diote batere garrantzirik ematen. Adibide batekin azaltzen du Ramonek, "jatorduetan, familiako kideak elkarri bizkarra emanda jaten ikusi ditut Cochabambako koyak indigenak".

Hangoei laguntzeko modua: ume baten aita-ama bitxi izan

Ramonen ekimenari esker, hango 24 umek dute aita-ama bitxia hemen. Zer da hori, ordea? "Erraza da. Urtean 200 dolar bidali behar dira barnetegira, laguntza modura. Diru hori barnetegiarentzat eta hango ume batentzat da. Gero, ume horrekin karta bidezko harremana izaten da. Horixe da, besterik ez".

Datorren urteko asmoak

Martxoa aldera erabakitzen du Ramonek joan edo ez joan. Hemen gauzak ondo direla, datorren urtean ere han izango da. Kaleko umeak zain izango ditu. Behin joanda sortzen den lotura eta konpromisoa oso estuak dira.

AITA-AMA BITXI EGITEKO INFORMAZIOA

SANTA CRUZEKO UMEEN EGOITZA

AITA-AMA BITXI EGIN ZAITEZ

3. munduko haurren baten aita-ama bitxi egiteko intenzioa baduzu, hemen dankazu aukera!
Boliviako, aita kaputxinoek antolatua, "Hogar Sta. Cruz"en 7 urtetik 13rako umeak daude norbaiten zain.

Zuzentasuna eta umeekin nahi adinako kontaktua ziurtatzen zaizue.

BALDINTZAK

7-13 urteko neska-mutillak: kalekoak, baztertuak, famili bananduetakoak, baliabiderik gabekoak.

Urtean 200\$ (240€) neska-mutillak: etxea mantentzeko eta umeen gastuentzako.

Dirua eta aita-ama bitxiaren helbidea bidali ondoren, umeak lehen eskutitza bidaliko du.

ORDAINKETA

Urte guztiko transferentzia: 200\$.

Hileroko transferentzia: 17\$

Kontua: Bco Unión de Sta Cruz nº 2-1408009 (dolarrak)
Sta. Cruz (Bolivia)

HELBIDEA

Hogar de Niños Sta. Cruz

Casilla 241 Teléfono 00 591 33 541010
STA. CRUZ DE LA SIERRA (BOLIVIA)

IKASTETXEAN UTZTEKO

Izen-Abizenak

Helbidea

Egoitza nagusia:
Ezpe Alai, 18 - 20730 AZPÉRTA (Gipuzkoa)
Tel: 943 81 02 10 - Fax: 943 15 15 42

Milagrosa
Hazarbaita hiribidea, 7
Tel: 943 81 63 80 - Fax: 943 15 76 63

Bethazuma
Jose de Arce, 4
Tel: 943 81 16 68 - Fax: 943 15 15 78

Jesús Alai, 11
Tel: 943 81 22 49 - Fax: 943 37 07

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamendu

ALTZARIAK OSTOLAZA AROSZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

GALDERA HONI ERANTZUN DIOZUE:

Galipota ugari izan da Zumaia honetaz. Badirudi oraindik ere gehiago etorriko dela.

Zein da arazo beltz honi buruzko zure iritzia?

Honez gero gauza berri gutxi esan daiteke Prestige-en hondamendiaz. Uda guztia pasa dugu hondartzan hanketako galipota kentzen, eta uste dut gertatutakoak balio beharko lukeela jendea konturatzeke zeinen garrantzitsua den gure itsasoa, mendiak etab. behar bezala zaintzea. Uda honetan itsasora irten dugunok galipotaz gain Koka Kola latak, ur botilak eta bestelako zabor pila bat dagoela ikusi dugu. Horregatik, ondo dago galipotaz kexatzea, baina natura ez dugu galipotarekin bakarrik hondatzen.

Fvbmagai

Pena bakarra dakat. Madriderik kosta ez eukitzia. Gu bezela zikinduko zian, ta igual gauzak hobeto egingo zituen .

porrutxo

Lotsagarria izan da. Gaizki pentsatzen hasita, ez dakit nahita ez duten egin. Gero, gainera, Galiziko hauteskundeetan berriz ere PPkoek irabazi. Dirutza ederra ordaindu diote hango jendeari, isilik egoteko. Lotsagarria!!

Gu ta gutarrak

Behin ezbeharra gertatuta, jakinekoa zen gure kostak ere zikinduko zirela. Ahalik eta gutxien zikintzeko arrantzaleek egindako lana ikusgarria eta ikaragarria izan da. Bejondeiela!! Inork gutxik eskertu dielakoan nago.

Yves

Espainiako eta Galiziako agintariek gertatu denaren gaineko erantzukizun handia daukate. Gutxi egin eta egindako hori, desastre!! Hala ere, hemengo agintariei ere kritika egin behar diet. Oso ondo dago hondartzak garbitzea (turismoa, ekonomia, dirua...), baina gure kostaldeko haitzak ere bapo zikindu dira, eta horiek garbitzeko ezer gutxi egin dutela iruditzen zait.

Jakes

Etziok eskubideik hontako. Gainea, aitu egin behar hondartzak garbiyak dabela. Gezurra gezurran atzetik esaten dute. Holako jendilajia ez deu nahi gure artian.

Prontxia

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719



SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak



TALAI

INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1

HAUXE DA HILABETE HONETAKO GALDERA:


- Erretzea kaltegarria da!!
- Eta zer!! Beste gauza batzuk ere txarrak dira...
- Mezu oso onak jarri dituzte tabako paketeetan. Eskarmentatuko al dira erretzaileak!!
- Lotsagarria da!! Mezu horiek jarri, baina tabakoarekin aberastu.

Zer iruditzen zaizkizu tabako paketeetan ipintzen hasi diren mezuak eta irudiak?

Erantzunak helbide honetara bidali: baleike@topagunea.com

Erantzunak bidaltzen dituzuenon artean KARIDAEKO BENTA diskoaren bost ale zozketatuko ditugu. Bidali erantzunak!!



 TXINGURRI Koop. Elk.	ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA GIPUZKOA Kalea, 33 0 34 20.800 ZARAUZ (GIPUZKOA) Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40 Jardinen diseinu ... mantenimendua Nekazaritza zerbitzuak Kirol zelaien mantenimendua Txostenak ... aholkularitza teknikoa. Balorazioak Nekazaritza Injineru Teknikoak	SOLOZABAL AUTOESKOLA - Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean - Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita - Merkantziak eta bidaariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak P. Etchezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416	<i>gidatzeko baimen guztiak</i> 
--	---	---	---

 GAZTE, S.L. ELEKTRIZITATEA ARGIDENDA <i>Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan</i> Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402	TAILERRA: Estazioko kalea, 23 Tel. mugikorra: 608 143409	Alberdi <i>Gizonezkoen moda</i>  Erribera kalea, 6 Tel. 861155
--	--	---

 Tapaia Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73	 SAION taberna ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151	AROTEGIA Urola 2000, s.l. *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa *Baserrien zaharberritzea *Enbarkazio konponketa *Ate, zokalo tarima eta pertsianak *Armairu enpotratuen aurrealdea *Aroztegi metalikoa Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505
--	---	---

Xabier Amurizak Zumaiari

HIRU BERTSO hauekintxe ekin zion Amuriza txapeldunak 1978 urteko azaroaren 26ean Aita Mari aretoan eman zuen jaialdi

bikainari. Goitik behera bete-betean hornituriko ale ederrak benetan.

Aurrez prestatuak dira, noski. Zumaiako bertsozaleok buruz ikasi eta noizean behin lagunartean kantatzeko modukoak, ez al zaizu iruditzen? Laurehun herri, Mila bertso berri izeneko liburuan argitaratuak dauzkazu. Eta orain gure Baleike honen bidez, berriro zure eskura jarri nahi izan ditugu, horrenbeste merezi dutelakoan. Herri bat ez da sekula hilko kantatzen baldin badaki.



Zumaiako
Bertso Eskola

-1-

Estazioan trenetik jetxi
Poligono hortan bera
Parolaldetik jira eginda
jo dut San Telmo aldera
Gautxorin zehar zokondo batzuk
utzirik alde batera
Beko-Kalean zazpi txikito
handik Arrua aldera
Beko-Plazako musikaz gatoz
Zumaia dantzan jartzera

-2-

Hemen Itziar eta Arrua
han Zarautz eta Getari
autopistaren bi aldetara
Oikia eta Artadi
Zestoan bera Urola eta
ipar aldetik Kantauri
itsaso horrek tristura ere
jarriko luke kantari
herri eder bat maite nai badek
Zumaian gelditu hadi

-3-

Euskaldunari tokatu zaion
zortea latza izaki
hemen lau gara han hiru dira
muga bat eta bi zati
nola ezpata jarri erditik
len hain txikia zen bati?
bertsolariak ezin isildu
naizta lepoa ebaki
herri bat ez da sekula hilko
kantatzen baldin badaki

Musikaren inguruan...

EGUNKARIAN irakurri berri dut gero eta jende gutxiago joaten dela kontzertuetara; eta joaten dena, gero eta zaharragoa dela.

Gazte gutxi, alegia Handik egun gutxira, berriz, gero eta auditorio eta kontzertuetarako toki gehiago egiten ari direla irakurri dut.

Gure herri Santu honetan ere halako zerbait pasatzen da: musikarako tokiak badauzkagu, akustika onarekin, okerra-goarekin -hau beste kupel bateko ardoa dugu-. Era askotako musika egiten duten taldeak ere badaude, eta hauek entzutera joaten dena, ba, betiko jendea.

Ematen du gauza nola eta noiz akabatuko zain gaudela: askok esaten duen bezala, "betiko, Jaungoikua, ta bea nahikua". Orduan, konponbideren bat jarri beharko zaio kontu honi. Non dago arazoa? Musika egiteko gogorik ez? Musikari denek nahi izaten dute eszenatokira igo. Kulturakoek kontzerturik nahi ez? Beraien lana da gauzak antolatzea (laguntza gehiago edo gutxiagorekin). Edukazioa? Beti da garai ona gauza berriak ikasteko, eta orduan, erakusteko ere bai.

Musikari profesionalak badauzkagu herrian, saltsa honetan dabilen makina bat herritar ere bai. Denen laguntza eskatu nahi dugu hemendik, guztion artean herriko martxa, behintzat, itxuratzeke. Dena ez da txarra, baina dagoena hobetzen badugu guretzat izango da egindako hori.

Nahiz eta inor ere ez akordatu (betikoak bai, horiek akordatuko dira), datorren hilean Santa Zezilia dugu. Horregatik ere, Olarru Zopako ate hau musika eta musikari denentzako ireki dugu, kontu berriak erakusteko, ikasteko eta entzuten ikasteko ere bai.



Sami
Musikazalea

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

OSTOLAZA

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Julio Beobide (1891 - 1969)


ZUMAIAIN JAIOA, mutikotatik zetorren artegin-tzarako grinatua. Apala, jende umilaren maitalea, herriko arrantzaleak zituen lagunik handienak.

Gaztetan, Frantzian eta Italian ibili zen Gasteizen eta Madrilén eginiko eskultura-ikasketak sakontzen. Hirukote artistiko polita osatu zuen Zuloaga eta Urangarekin. Elkarri laguntzeaz gain, gauza asko egin zituzten elkarrekin.

Lehen erakusketa berak eginiko bustoekin osatu zuen 1936an Donostian. Harria eta zura landu zituen batik bat. Bere eskulturen artean, mundu osoan zehar banaturik dauden Kristoren irudiak dira nabar-

menenak; ezagunenak Zumaiaiko Santiago elizako Kristoa, Añorgako parrokiakoa, Montevideokoa eta Toledokoa dira.

Madrilgo San Fernando Akademiako kide eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko ohorezko kide izan zen. Gaixoaldi luze baten ostean hil zen bere sorterrian.



“TU ETS MESTRA”: zu zeu ere irakasle!

HONEZ GERO bukatuta edo bukatzeaz egongo da AEK Euskaltegian izena emateko epea. Ikusiko zenuten nola talde ezberdientzako eskaintzak dauzkatela aurtengo ikasturterako: adibidez, dendarientzat, EGA atera nahi dutenentzat, eta baita etorkinentzat ere.



Ibon
Manterola

Begi-bistakoa da gure herrira gero eta jende gehiago datorrela kanpotik. Eta denontzat beharrezkoa da gure hizkuntza ikasteko aukera izan dezaten. Alde honetatik, Euskaltegiak egin beharreko lana (Udalarekin, ikastetxeekin etab. elkarlanean) oso garrantzitsua da, bai etorkinentzat eta baita herriarentzat ere. Baina etorkinek euskara ikasteko Euskaltegia eta zerbait gehiago behar dute. Begira bestela Kataluniako Generalitat-ak martxan jarri duen kanpaina: “Tu ets mestra” edo “zu zara irakaslea”.

“Kanpotik datozenek katalana ezagutu eta hitz egin dezaten, zu zara irakaslerik onena. Hitz egin iezaezu katalanez (...) Katalanez hitz egiten badute, gure kultura egokitzen lagunduko diezu, eta gainera, beren garapen pertsonalari eta profesionalari bultzada emango diozu.” Esaldi hauek argazki batean ikus daitezke: harategi bat da, etorkin bat lanean ari den harategi bat. Eta bezero bat dago, mostradorean. Bezeroari, kaleko jende arruntari zuzendu diote kanpaina: zu zeu zara etorkinentzako irakaslerik onena!

Ez al zaizue iruditzen horrelako argazkiak gure herrian ere egunero-egunero ikus daitezkeela? Lantokian, kalean, dendetan...herriko txoko guztietan. Euskaltegian ikasturtea hasi da dagoeneko: izan zaitez zu ere irakasle!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatu + Aseguratuak
Finka Administrazioak

biomin aguirre 4. behea
20.750 zumaia (gipuzkoa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Europear ere Paulo Agirrezabalaga zumaiar onena

Parte hartzaile kopurua sekula baino handiagoa izan zen.

Euria goian behean ari bazuen ere, 457 korrikalarik eman zuten izena 20 kilometroak egiteko.

Zumaiar atletak ugari izan ziren, baita kanpotarrak ere. Parte hartu zutenen artean hiru gutxituak nabarmendu behar dira. Gurgildun aulkian hor ibili ziren Iñaki Castañeda, Jose Antonio Iglesias eta Lontxo Esnaola. Hurrenkera horretan ailegatu ziren helmugara. Meritu itzela hirurena.

Gizonezkoetan, 20 kilometroak egiten azkarrena Pedro Muñoz izan zen, ordubete 7 minutu eta 14 segundoko denbora eginda. Bigarren Xabi Aranaga sailkatu zen, eta hirugarren, Javier Colomo.

Neskatan, hirugarren aldiz Iratxe Aranburu Epelde zarautzarrak irabazi zuen. Errekor berri jarrita irabazi, gainera. Marka berria ordubete 13 minutu eta 9 segundokoa da. Bigarren Nerea Azpiazu izan zen, eta hirugarren, Nicole Leresse.



Zumaiarrak

Onena, iaz bezala, Paulo Agirrezabalaga izan zen. Bigarren Jesus Mari Arrona. Eta hirugarren Mariano Sanchez.

Helduen edo beteranoen mailan, Jesus Mari Arrona nagusitu zen. Bigarren Mariano Sanchez. Eta hirugarren Felipe Agirre. Neskatan, zumaiar bakarrak parte hartu zuenez, bera onena: Ainhoa Azkarate.

Beste zumaiar askok ere bukatu zuten Zakila Bira. Den denei zorionak!!

Harrobiko arraunlariak denboraldia prestatzen

Arraun Elkarteko arraunlari gazteenek urriaren hasiera aldera hasi zituzten entrenamenduak

Ilusioa eta gogoia gainezka, egunero-egunero, arratsaldeetan, Itsas kiroldegian biltzen dira Zumaiaiko arraunlari gazteenak.

2004ko denboraldia otsailean hasiko dute. Neskatan, kadeteak eta haurrak edo infantilak biltzen dira. Seniorren koadrila aurtan ere ez dute aterako, lan arazoak tarteko, entrenamenduetara joatea ezinezkoa zaielako. Mutiletan, gazteak, kadeteak eta haurrak edo infantilak ari dira lanean. Haurren adinean, taldea osatzeko jendea badute, baina gehiago joanez gero, gustura hartuko lituzkete.

Horiek denei erakusten prestatzaile taldea ari da jo eta su lanean. Hauexek: Jabier Osa, Iñigo Eiguren, Joseba Aristi, Joxe Enrike Manterola, eta Luis Mari Osa.

Neska eta mutil, arratsaldero haur eta gazte ugari biltzen da Itsas Kiroldegian. Hori kontuan izanda, kiroldegia handitzeko asmoa dute Arraun Elkartekoek. Zenbaitetan arazoak izaten dituzte leku eskasia dela-eta.



Prestatzen ari diren batzuk bakarrik daude argazkian.

Kontrarioaren etxean, hirugarrena



Iñaki Osa Goi-koetxea Euskal Herriko buruz buruko txapelketako irabazle hirugarren aldiz

30 eta 15 nagusitu zitzaien Julen Bereikuari Berriatua jokaturako final handian. Emaizak garbi

adierazten duen bezala, kolore bakarra izan zen pilotalekuan: Iñakiren gorria. Hasiera- hasieratik aurea hartu, eta alde handitzen joan zen zumaiar aurrelaria. Pilotalekuan zumaiar mordoia bildu zen, eta partida bukatuta, denak gustura asko itzuli ziren herrira. Zorionak Iñaki!!

Seigarren

IRUNEN OSPATU zen Espainiako Txapelketa irabazi ondoren, Munduko Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu genuen. Denboraldi osoan entrenatzen egon ondoren guretzat opari bat izan zen.

Mundiala irailaren 27-28an izan zen Valladoliden, baina gu irailaren 20rako bertan geunden selekzioko beste kideak bezala. Han igaro genuen astean, gure lana, Pisuer-ga ibaira egokitu eta bertako porteoak ezagutzea izan zen. Porteo, piragatik irten eta bide bat piragua eskuan egitean datza. Gero, berriz uretan montatu eta piraguan jarraitu behar da. Mundial honetan guk 3 porteo izan genituen, 22 kilometroetan. Gure lasterketa goizeko bederatzietan zenez, aste osoan zazpiretan gosalduek eta bederatzietarako uretan egoten ginen, ordura ohitzen joateko.

Txapelketako eguna hurbiltzen ari zen heinean, urrutiko selekzioak ere iristen hasi ziren Valladolidera. Guretzat dena berria zen, ez baikeuen inoiz horrelako txapelketa batean parte hartu, ezta nazioarteko lasterketa batean inoiz egon ere.

Larunbata iristean banakakoen txapelketa hasi zen. Goizeko 9etan jubenilen lasterketa izan zen, eta 12tan senior mailako txapelketa. Gauean afaldu eta oheratu aurretik, hurrengo egunerako plana gogoratzen aritu ginen.

Igande goiza iritsi zen. Jaiki eta gosaltzera jaitsi ginen. Goizero bezala, gosalduek eta oinez piragua gordetzen genituen karpak hurbildu ginen. Karpak hau Valladolideko hondartzan zegoen kokatuta, porteo egiten zen lekuan. Bertara iritsi eta piraguak prestatzen hasi ginen. Bakoitzak bere piragua prestatzen jardun genuen. Lasterketaren hasieran eraman behar genuen likidoa ezarri genuen piraguan. 8:40ak aldera beste K-2ak uretara ateratzen hasi

ziren, eta gu ere bide horretan jarri ginen. Elkarri zortea opa, eta uretara sartu ginen beroketa lanak egitera. Irteera bidean, Zumaia hara joandako lagun eta senideak ikusi genituen, eta haiek emandako animoak oso garrantzitsuak izan ziren lasterketa hasi baino lehen.

Lasterketako irteeran jarri, eta gure helburua hasieran sortuko zen taldean sartzea zen. Irteera eman eta hungariarrak jarri ziren buruan, poloniarrekin eta beste hungariarrekin batera. Txekiarrek eta gu ere talde horretan sartu ginen, baina 2,5 kilometro ondoren, taldetik kanpo geratu

ginen gu, eta beste laurak aurrera jarraitu zuten. Gure atzetik zetozen espainiarrak, australiarrak, britainiarrak eta suediarrek elkartu zitzaizkigun, eta talde horretan olatuan joatea erabaki genuen egindako irteera erreperatatzeko. Lehenengo porteo eta gero, konturatu ginen porteoetan kanpotarrak gu baino azkarragoak zirela eta olatua ez galtzen saiatu behar genuen.

Bigarren zibaboga egin ondoren, suediarrekin eta australiarrekin bakarrik geratu ginen; espainiarrak eta britainiarrak atzean utzi genituen. Bigarren porteo egitera sartu gine-nean, ur asko genuen eta atxikatzen geratu ginen. Porteo egin eta beste bi K-2ak aurretik genituen. Helburua bi hauek harrapatzea izan zen eta harrapatu egin genituen 3. zibaboga baino lehen. Hirugarren porteo egin eta australiarrak ihes egin zuten, suediarrek, ordea, harrapatu genituen eta 4. zibabogan suediarrek atzean utzi, eta helmugaraino dena eman genuen. 6. postua lortu genuen eta 11 hilabeteko lanaren emaitzarekin oso gustura geratu ginen.

Amaitzean, Zumaia hara hurbildutako lagun eta senideekin ospatzea izan zen onena, eta lerro hauen bidez eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu guztiei. Baita herrian izan dugun laguntza eskertu ere. Beraz ESKE-RRIK ASKO DENEI.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAILA MOTOR

Santxo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Oier Aizpurua: " Bagenekien zaila izango zela"

Munduko Txapelketan, 200 metroko proban, hirugarren izan zen Oier Aizpurua K 4 ontzia. Brontzezko domina horrek, ez die gozatu 1000 metrotan Joko Olinpikoe-tarako plaza hogeia ehunenekorengatik lortu ez izana

Aho gustu gazi-geza horrekin datorkigu Oier. Mundiala bukatu eta berehala, tristura gailendu zitzaion pozari. Brontzezko dominaren benetako balioa ez zuten behar bezala neurtzen. Joko Olinpikoetatik hogeia ehunenekotik kanpo gelditzea oso gogorra izan da.

Mundialetan bi probatan parte hartu duzu. 200 metrokoa aztertzen hasita, gustura, ezta?

Oier Aizpurua: Bai, oso gustura. Hala ere, batzuek uste dute lehengo urteko mundialean urrea irabazi genuenez, aurtengo hirugarren postua atzera egitea dela. Baina kontuan izan, iaz gurekin batera aurrea izan ziren eslobakiarrak, aurtengo zortzigarren izan direla; eta hirugarren izan ziren hungariarrak, bosgarren. Gainera, gure aurretik gelditu ziren bi herrialdeak distantzia hau prestatu zuten. Guk ez, gure helburua 1000 metroko proba zen.

Izugarrizko berdintasuna dago, hortaz.

Oier: Bai. Loteria bat da. Distantzia oso motza denez, edozer gerta liteke. Pentsa, urrea ateratzen finala bakarrik irabazi zuten. Sailkatzeko estropadan eta finalerdietan ez ziren aurrenak izan.

1000 metrokoa zen zuek prestatutako proba. Helburua, sei aurrenetan sartuta, datorren urteko Joko Olinpikoetan izateko txartela lortzea. Azkenean, zazpigarren, seigarrenarengandik hogeia ehunenekora. Gogorra, ezta?

Oier: Bagenekien zaila izango zela. Joan aurretik esan balidate, zazpigarren eta hirugarrenetik segundo bakar batera geldituko ginela, firmatu egingo nuke. Aurreneko sei postuetan sartzeko aukerarekin hamabost ontzi geunden. Hamabost hautagai, eta Joko Olinpikoetarako sei txartel. Sailkatzeko estropadan moral handia hartu genuen. Iazko Munduko txapeladunekin batera joan ginen, eta horrek indar handia eman zigun. Lehengo urtean beraiengandik bospasei segundo-ira ibiltzen ginela kontuan izanda, sekulakoa izan zen beraiekin joatea.

Sailkatze estropada bikain gaitzitu ondoren, hurrengo lana finalerdiak.

Oier: Hor ere lan ona egin genuen. Iazko txapel-



Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

ketan bigarren eta hirugarren izan ziren Alemania eta Hungariarekin aritu ginen. Baita Eslovakiarekin ere. Hiru taldeak zein baino zein hobeak. Gu gure lana egitera atera ginen. Finalerdietako denbora onena egiten duenak, finalen bosgarren kaletik joateko aukera dauka, beste guztiak zainduz. Bagenekien hori oso zaila zela, baina saiatu ginen. Azkenean hirugarren izan ginen. Oso gustura geunden, eta lehendik moral handia bagenuen, horrek indar gehiago eman zigun.

Indar horrekin eta sekulako gogoarekin zeundetela jakatu zenuten final handia.

Oier: Sekulako parekotasuna zegoen finalisten artean. Guk laugarren edo bosgarren denbora onena genuen, baina ontzi guztiak segundo baten barruan ginen. Gero, bazegoen kontuan izateko beste faktore bat: haizea. Sailkatzeko estropadetan eta finalerdietan haizea alde izan genuen, eta hori guretzat oso ona izan zen. Finalean, ordea, haize oso gutxi, eta zegoena kontra. Haizea alde izanez gero, dominaren bat lortzeko aukerak izango genituela pentsatzen genuen.

Nolakoa izan zen finala?

Oier: Guk teknikoki eta taktikoki oso ondo egin genuen. Estropada erdian aurretik ginen. 200 bat metro falta zirenean ontzi denek erritmoa igo genuen.. Orduan laugarren gindoazen, eta bulgariarrak atzetik. Barruan ginela pentsatu nuen. Haiek erritmoa aldatuta aurrea hartu ziguten, baina guk ere gauza bera egin, eta berriz aurretik ginen. Azkeneko 50 metroetan, ordea, dena pikutara joan zitzaigun. Indarrrik gabe gentozen, eta ontzia pixkat erori zitzaigun. Estropada bukatzeko hiru bat segundo gelditzen ziren. Berritoki ontzia zuzentzen denbora galdu genuen, eta helmugara lau bat ontzi ia batera sartu ginen. Ni kontura-

tu nintzen ez ginela sei aurrenetan. Bulgariarrak, estropada guztian atzetik izan genituenak, laugarren sailkatu ziren. Azkeneko metroetako ezbehar txiki horregatik ez balitz, laugarren izango ginen.

2004ko Atenaseko Joko Olinpikoetan izateko aukerarik bai al duzue oraindik?

Oier: Bai. Datorren urteko maiatzean, Polonian izango diren Europako Txapelketan, bi edo hiru plaza izango dira jokoan. Txapelketa horretan Ozeaniako ontziak ere arituko dira gurekin.

Nola ikusten duzu Europako Txapelketa?

Oier: Oso gogorra izango da. Ontzi oso indartsuak gelditu dira Joko Olinpikoetatik kanpo, eta zaila izango da plaza horiek lortzea. Errusia, Italia, Norvegia, Txekiar Erre-

publika, Australia, Zelanda Berria, Frantzia, gu...talde on asko izango gara.

Orain, hemendik aurrera, zer?

Oier: Europako Txapelketa prestatzen hasiko gara laster. Prestaketa, beti bezala, Madrilan, Sevillan eta Asturiasen egingo dugu.

Beste kontu bat, Oier. Komunikabideetan, oro har, ez dute ezer aipatu Munduko Txapelketari buruz. Tristeia, ezta?

Oier: Bai. Gogorra da. Iaz Munduko Txapelketa Sevillan izan zenez, Espainiako komunikabide denak gainean genituen. Aurten ia inor ere ez da gurekin gogoratu. Eta okerrago dena, gogoratu diren batzuk lan txarra egin dugula esaten ibili dira. Baina guri psikologoak esaten digun bezala, norberak dena ematen duenean, gustura egon behar da, nahiz eta helburua ez lortu.

“Azkeneko metroetako ezbehar txiki horregatik ez balitz, laugarren izango ginen”




Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERAKOPA

OIN ZUMAIAR ASKO BIZI DAN TOKIYAN, LENO EHIZIAN JARDUTEN ZIAN

Udara amaitu zaigu eta Udazkena heldu da gure artera. Garai honetan arropa egokia jantzi, eskopeta hartu, eta hainbat ehiztari abiatzen dira mendi aldera. Duela berrogeita hamar urte ere baziren ehiztariak gure inguruan, hauek nola jarduten ziren jakin nahi izan dugu. Horretarako, ehizan urtetan ibili den Keperin Artiarekin elkartu gara.

1950 urte inguruan Zumaiako ehiztariak Artadi, Oikiya, Askizu eta Miarrino ere juten zian. Beti izate zan jendia ehizian, oin baino jende gutxiyo zeon, baina afiziyua beti izan da. Ehiztariyak beti txakurra izaten zuen lagun mendian, eskopetakin bakarrik jun baino, nahio izaten zuten mendira txakurra ta maki-lakin jun. Gaur egun, udaran txakurrakin jutia debekauta dao, leno libre uzten zuten bere errespeto batian.

Eskopetak ez zian gaur egunekuak bezelakuak izaten, eta kartutxoak eta perdigoiak ere iten jarduten zian batzutan. Kartutxoak beti tankera berdinekuak izan dia, kartutxoak garai hartan kartoizkuak izate zian, ta tirua bota eta gero jaso eta kargatu egiten zituzten, beraiek erositako perdigoi eta pistoiekin. Polbora erosi eta kartutxoak egiten ere jarduten zian. Perdigoiak ere egiten zituzten lagun artean, baina, honek ez zien emaitza onik eman.

Ehizea ze lekuta jun erabakitzeo orduan, garai hartan

dana libre izate zan, ez zan gaur egunian bezela leku bat lortzeko sortea jun berrik izaten. Puestuak leku jakin batzuetan izate zian, usuak pasatze dian lekuan eo inguruan ite zian. Urte haietan ere egoten zian ehiza kontrolatzen zutenak, guardia zibilak batez ere, guardak ez zian sartzen ehiz kontuan, baina, orduan etzan oin bezela ehiz bat hiltzia o bestia hiltzia kontrolatzen.

Bedan arabera, ehiz bat edo beste egitera abiatzen ziren herri inguruko txokoetara. Kaiua hiltzia beti debekauta izan da. Oktubrian erdirarte zozua ta begiarrua hiltzia beti debekauta eon da. Eote zan agostuan erdiyan irekita media beda, oin itxi iteue ia hilabete, orduan ez, orduan irekitze zuen baina galeperra, usua ta tortola ehizatzeo bakarrik. Erbiyak ta beste gainontzeo gauzak debekauta eote zian. Generalian oktubrian bigarren jaian, pilarka egunian inguruan irekitze zan. Itxi berriz, oilaorra, zozua ta pasadako ehiza hemen bertakua zana, hilbeltzan azkenian itxen zian. Bestiak oilaorra ta hoiek segi ite zuen martxuan aurrenerarte gutxi gora behera.

Gaur egun, ehiztariyak bakarka joan oi dira mendira, eta gehienbat, hegaztiak ehizatzen dituzte. Garai hartan, nahio



Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

GANBARA



juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



Basel Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMARRA

AITA MARI
kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumara

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

izaten zuten kuadrilan ehizian ibili, eta honetarako egokiena erbittara jutia izaten zan. Txoriak ehizatzerak bakarka edo bi lagun elkartzen zian, baina erbiyetako hiruzpalau lagun. 1960ko hamarkadan erbi asko zeuden inguruan. Diputaziyuak Pagoeta ingurura faisanak eta erbiyak ekarri zitun, eta handik repoblau zan asko. Kuadrilan txakurrakin-da jun eta ambiente earra sortze zan, harek bazun beselako grazi bat. Gero, ehizatutako erbiyak, saltzan prestatu eta lagun artian jaten zituzten. Azkeneko urtetan, berriz, ez da erbi-kan ikusten, eta ehizatu nahi dituztenak Extremadura aldera jun behar izaten dute.

Garai hartan arazo gutxi eoten zian ehiztariyak, ehizan aurkako taldiak-eta gaur egungo gauzak dia. Batzutan eote zan

arazo txikiren bat gariya botata zeon lekuan jendia sartze zalako, eta herritik gertu tirua botatzen zalako. Poligonoko etxiak dauden lekuan, dana gari lurra zian, ta han ehizian ibiltzen zian. Basusta daon lekuan berriz, len guardia zibilan kuartela zeon, eta kuartelan aurreko zingiran ehiztari batzuk ibiltze zian. Han inguruan eta kaminu urrian tirua bota, eta gero saltaka ihesi juten zian.

Askotan entzuten da kalia ehiztariyak gezurra besteik ez duela esaten, baina ezta horrenbesteako. Batzutan, gauzak esplikau eta ez dia sinisteko moukuak izaten, baina egia ere izaten dia tartian. Batzutan izatea bost hil ditula esan eta hiru ehizatu dituna; beste batek berriz, oilorak igual badiala ta bueno bi oilor hil, ta geo bakarria hil dula. Baina hemen angulakin bezela gertatzen da.

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

EGOKI

 *Erloju eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan



Tel. 943 860000

ERROTA
OPILOKINDEGIA

Emilio Perez
Elektrosailuen salmenta eta konponketa

ADI

Poboa Eteazarreta, 23
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 143 415
E-mail: adiele@euskalnet.net

ad **AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Julio beobide 3, ifno. 943 019 869

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6



taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

ETEBETSA

IGANDEA: Elorriyara joan naiz, bizikletan. Giro ederra zegoen, espeziala. Arrukaletik Andre Marira, Andikatik Pikotera eta handik, itsaso urdina bistan, atsedeen-lekura irten naiz, izerdi-patsetan. Isostar-a edaten ari nintzela, mahaian eserita, Jabier ikusi dut, niregana hurbiltzen. "Prepara, Pelix!", esan diot neure buruari... Ohi bezala, ez zeukan presarik, baina nik ere ez hitz egiteko gogorik. Betiko tema: moto berria erosi behar duela (ez da konturatzeko, baina hiru urte daramazki horrela!), lanean nazkatuta dagoela ("astalos, astalos", esaten du etengabe), arratsaldean Anoetara doala... Nik buruarekin baietz egiten nion, eta "ajá", "ajá" esan, baina ez diot egin kasu handirik. Jabier Astuntzi-k alde egin duenean, berriz ere Mielekin akordatu naiz, nire lagun minarekin, eta gaur ez dagoela hemen, nirekin, Elorriyan.

LARUNBATA: Egunkariaren bila jaitsi naizenean, eguerdian, Baleike ere topatu dut buzoian. Plastikoa puskatu eta azaletik begiratu dut, igogailura bidean: Karidadeko Benta, badatorrela perretxiko-garaia, Oier Aizpurua... Inor ere ez da kexatu, ale honetan ere, Andremaiko bederatzuurren eskandalosoaz. Pentsatu dut agian Mielekin badaukala aldizkaria erabiltzea, oharra jartzeko.

Hamabietan Mielekin geratuta nengoen eta bila jaitsi naiz. Arranplako petrilean eseri gara, ohi bezala. Esan diot Baleikeko ohararena. Ondo iruditzen zaio, baina hilabete barru aterako da hurrengo zenbakia eta.... "Oso urruti ziozk hilabete barru hori", esan dit.

Arratsaldean ez naiz irten ere egin etxetik. Ez neukan gogorik. Komikiak eta errebistak ikusi eta ikusi, siesta egin, zerbeza edan eta telebista kontsumitu. Besterik ez dut egin. Baina ez pentsa kontzientziako kargarik daukadanik...

OSTIRALA: Hamaiketan Mielen bila jaitsi naiz eta tipi-tapa irten dugu. Gaur Zubi Txikiaren beste aldean begiratu dugu: Poligonoa, Estazioa, Gautxori... Alfer-alferrik. Sanmielen, Oikian, Narrondon..., inguruetan ere begiratu nahi zuen. Nik esaten nion, behin eta berriz, alferrik ari ginela, honezkero ondo enpleatuta eta urrun egongo dela, baina, normala, ez du nahi etsi.

OSTEGUNA: Goizean kinkilleroetan izan naiz. Jertse urdin bat erosi dut. Urdina berriz ere. Hamahiru jertse urdin dauzkat armaruan.

Gauean zineforumera. Aspertu egin naiz, beti bezala. Pelikula txatxuak. Esaten diot nik Kattani, eta Abelini ere bai, tartean pelikula pornoren bat ekartzeko, baina beti erantzun berbera, biek ere: jendeak ez omen du nahi (zein da "jendea"?) eta horrelakoak nahi adina dauzkadala bideo-dendetan (ez Zumaikoetan, behintzat!).

Eskerrak izan dudan nola entretenitu. Gertu jarri zaidan neska oso ondo zegoen. Ederra. Desiragarria. Kanpoko zen. Mutil batekin etorri da. Nik mutil hura izan nahiko nukeen. Pelikula hasi orduko, ni ere ametsetan hasi naiz. Galtzontziloak bustita sumatu ditut. Gero, lo hartu dut.

Argiek, eta batez ere ondoan zeudenen barreek, esnatu naute.

ASTEAZKENA: Arratsaldean Mieli lagundu diot. Hasi gara Paolean, Inpernupen, eta bazter guztiak miatu ditugu: Itzurun, Talai Mendi, Ardantza, Alde Zaharra... Alferrik. Ertzainetara ere joan nahi du, Zarautza. Nik esan diot ezetz, laguntzeko prest nagoela, horretarako bai, baina hara ez noala, ezta pentsatu ere, erraza dela han sartzea, baina gero irtetea...



"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02





Gauean futbola zegoen telebistan. Txanpionli. Hogeita bi lagun tontoen moduan baloiaren atzetik. Ni are tontoago, haiei begiratzegatik. Baina ez zegoen beste ezer, aukeran; ez neukan logurerik; ez neukan ezertarako gogorik; ordu batak aldera, nazkatuta, zerbeza hartu dut hozkailutik eta balkoira irten naiz; zigarroa erre dut, ukalondoak barandan jarrita. Terrazako baldosa freskoen gainean etzan naiz, luze, zabal, eta zerurantz begiratu dut, izarren bila. Izar beltzen bila.



ASTEARTEA: Gaur goizean –goizegi, gauza onerako!– atea jo dute, dan-dan-dan-, eta ni hasieran geldirik ohean, isilik, aspertuko zelakoan. Baina berriz jo dute, dan-dan-dan-dan, eta horren ondoren txirrina, eta ohetik jaiki eta arropa jantzi behar izan dut. Miel zen. Asaldatuta, bere onetik irtenda. Sartzeko esan diot. "Ederra pasa zikak, Pelix, ederra pasa zikak!", esan dit. Bizikleta lapurtu omen diote etxeko eskailburutik. "Nere bizikleta!". Hori entzun orduko, nirea etorri zait burura. Atea zabaldu eta eskailburuan begiratu dugu. Han zegoen nire Orbea maitea. Lagunaren larritasunaren aurrean, ohiko galderak baino ez zaizkit okurritu, erantzunaren esperoan baino laguna kontsolatu nahian gehiago: "ez zenuen, ba, beste nonbaiten utziko?"; "ez zenion, ba, inori utziko?"... Ez eta ez. Bere etxeko solairura jaitsi gara, 2.era. "Atzo etxera etorri ginenean, gauean, hor zian... Hemen!". Kaleko arropak jantzi eta txaperoetara lagundu diot.

ASTELEHENA: Atzo ere kale kinielan. Alfer-alferrik ari gara, Miel eta biok. Horrela ez gara aberastuko. Atzo goizean ere nazkatu ederra hartu nuen, bizikletan, Inda Mendira bidean, Mielekin. Beti luzitu beharra dauka, harropuzkeria nagusi: Oikia bidean, Txikierditik gorako aldapa hasi orduko, atzean utzi ninduen, bera txistua jotzen eta ni arnasari buelta eman ezinik; aldapa behera, berriz, bere ipurdia ikusi behar beti;

metro gutxi batzuk egin orduko, hainbeste metro egin ditugu, hainbeste denboran, hainbesteko batez bestekoa. Nik bizikletaz ibili nahi dut, bai, baina lasai.

Arratsaldean basoerdi batzuk hartu ditugu Mielek eta biok: Inpernupe, Metro, Algorri eta azkena Nikolen. Betikoaz hitz egin dugu: futbolaz, atzo zeinen ondo ibili ginen, bizikletan, eta hurrengoan nora joan behar dugu.

Ettxera joan eta ez neukan logurerik, pentsamendu bakarrak lausotzen zidan-eta loa. Ordu bietan, kanpaiekin batera, bi solairu jaitsi eta etxeko eskailburutik bizikleta maitea hartu diot Mieli. Talaipera joan naiz. Arrantzaleak zeuden bidean, marea biziak dira eta. Ona da, bai bere bizikleta, eroso, erraz ibiltzekoa...

Ez dut uste inor ere harrituko zenik, bizikletan joan eta oinez itzultzen ikustegatik.

Itsasoak eta herdoilak dena jaten dute, baita aluminioa ere.

Bihar asteartea izango da.

Pelix Felix



GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20/50 ZUMAYA • Tel. 943 861191



EXO
URRATS

INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel/Fax: 943 143 192 - Juan Belmonte, 2 bajo - 20750 ZUMAYA

Jaungoikoa non ote?

CIDADE DE DEUS 60ko hamarkadan eraikitako Rio de Janeiroko auzoa 80ko hamarkadatik aurrera Brasil osoko lekuri arriskutsuena bihurtu zen. Langabeziak droga-trafikoa indartzea ekarri zion eta Meirelles zuzendariak auzo horretako argazki zehatz eta gordina egitean bide zailena aukeratu du: erruki faltuan erori gabe eta ohiko salaketa-filma egin gabe. Zer lortzeko? Ikusleok kontura gaitezen zer egoera ankerretan bizi diren "haur asasinoak" deitutakoak. Horretarako, bi haurren istorioaz baliatuko da: bata, Buscapé, egoera odoltsu horretatik irten nahi duena; bestea, Ze Pequeno, egoera odoltsu hori aprobetxatu nahi duena aberasteko. Bi istorioak elkarri lotuta doaz erritmo oso bizian eta zuzendariak ez digu ezertxo ere ezkutatu. Premia gorria eta heriotza nagusi diren auzo honetan haur eta mutikoen talde-armatuek dute agintea, biziak ez du

deus balio, inork ez du eskrupulu moralik aldamenekoa tiroz hiltzeko, agintariak ez dute ahalmenik eta adorerik egoera hori errotik mozteko eta abar. Honelakoak azaltzean zuzendariak errealitate gordina aurpegira botako digu gure patxadatik esna gaitezen. Film miresgarria, gordina, txundigarria, gogorra eta ederra bere ilunean. Fernando Meirelles mundu guztia aho zabalik utzi duen zuzendaria bihurtu da.



Ciudad de Dios
(Cidade de deus, Brasil, 2002),
Zuzendaria:
Fernando Meirelles
Aktoreak: Alexandre Rodrigues, L. Firmino da Hora, Phelipe Haagensen.
Urriak 16, osteguna, 22:15ean

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Berpizte gogorra

GIZON LANGABETU bat trenez Helsinkira iritsi da, lan bila. Iritsi bezain laster, ordea, bortizki astinduko dute, eta zekartzan gauza gutxiak lapurtzeaz gain, egoera penagarrian utzi eta erietxera eraman beharko dute.

Baina mirari baten antzera, gizagaixoa "berpiztu" egingo da. Arazo handi batekin aurkituko da, ordea: oroimena guztiz galdu du. Ez du ezer gogoratzen eta ez daki norantz jo. Orduan, itsas bazterrean bizi den familia txi-roak hartuko du bera zaintzeko ardura. Hortik aurrera, bizitza guztiz berri bati hasiera emateko aukera sortuko zaio, gizarteko maila aberatsetatik bazterturik dagoen jende artean: maila apaleko gizakiak izan, baina, era berean, gizatasunez beteriko komunitate aberatsa osatzen duten gizon-emakumeen artean.

Kaurismäki hotsasunez azaltzen dizkigun pertsonaiekin eraikitzen du sentimenduz beteriko tragikomedia bikain hau. Ironia finez eta une hunkigarriez beteriko istorio sinple baten bidez, gizatasunaren ezaugarri garrantzitsuak azalduko dizkigu: etorkizuna aldatzeko borondatea, bakardadea eta maitasuna, zakarkeria eta elkartasuna...

Gaur egungo gizarte berekoian, nahitaez ikusteko filma, mezu humanista bidaltzen du-eta.



Un hombre sin pasado

(Mies vailla meneisyttä, 2002, Finlandia)

Zuzendaria: Aki Kaurismäki

Aktoreak: Markku Peltola, Kati Outinen, Juhani Niemelä, Kaija Pakarinen

Sariak: Cannes 2002 (Sari nagusia); Fipresci saria urteko film onenari

Urriak 30,
osteguna, 22:15ean
Aita Mari zinean

LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
- Luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazakoa z/g. Tel: 943 861 322



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Udazkenean badugu zer egina

IKASTAROAK

Informazioa: 943-861056

- Pintura Tailerra: urritik maiatzera
- Photoshop : azaroak 3- abenduak 1
- Vainica I eta II : urritik maiatzera
- Punto smock-nido de abeja: urritik maiatzera
- Sukaldaritza:
- Gabonetako Sukaldaritza: urriak 6 / abenduak 15
- Sukaldaritza aurreratua: urtarrilak 12 – maiatzak 19
- Sukaldaritza bejetarianoa: urtarrilak 14- martxoak 24
- Tai Chi Chuan: urriak 22 – martxoak 31
- Kontrol Mentala: urriak 18 – azaroak 29
- Perkusio Afrikarra I eta II: urritik abendura

IRTEERAK KULTURALAK

Turismo bulegoa: 943-143396

- Urriak 4: Gernikan "Babarrun eguna"

- Azaroak 15: Gares-Irauntzuko monastegia-Lizarra

- Eta asteburuetan: Zumaian zehar bisita gidatuak, Kultur Irteera eta Natur Ibilaldiak.

ERAKUSKETAK

Alondegian

- Urriaren 16tik azaroaren 2ra: GINO "Argazki egunak, poesia egunak"

- Azaroaren 24tik abenduaren 5era: "Jostailu erakusketa"

DEIALDIAK

- Musika Maketak egiteko dirulaguntzak. Epea: azaroak 22a. Informazioa kultur etxean.

- "Zumaia Elkarte" Literatur Lehiaketa – informazioa Z.E. elkarteak komertzioetan. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 15a.

- Gaztetxola: berriro zabalik. Asteazkenetik larunbatara, 4.30etatik 8.30etara. Tel: 943-

117438
gaztetxola@euskalnet.net

- KLARINETE MARATOA-2. Edizioa: abenduaren 18tik 21era. Izenematea eta informazioa:

urriaren 22tik azaroaren 21era.

Ubillos Musika Etxean edo Forondan

KZ Gunea: Tel: 943-862866

Interneten nabigatzeko aukera, eta gainera ikastaroak:

- Oinarritzaileak: urriaren 6tik 17ra eta 20tik 31ra

- Nagusiweb: urriaren 13tik 17ra (55 urtetik aurrera)

- Kutxa: urriak 21 eta 22

- 16, osteguna

17.30 Ipuinkontaketa haur liburutegian

22.15 zineforum saioa

"Ciudad de Dios"

- 17, ostirala: 20.00etan alondegian, diapositiba emanaldia Juan Ramon Llavori "Tibeteko irudiak"

- 19, igandea: 12.00etan haur antzerkia Aita Marin Txotxongillo taldearen

"Itsasminez"

- 24tik-26ra Asteburu Mikologikoa

- 25, larunbata: 19.00etan plazan, Zumaia V. Txistulari Alardea

- 30, osteguna: 22.15etan zineforum saioa "Un hombre sin pasado"

Azaroa:

- 2, igandea: 17.00etan Maria eta Jose aretoan, Gipuzkoako bertso Txapelketako Final laurdenak

- 6, osteguna: iluntzean alondegian "Nabarralde" egitasmoaren aurkezpena.

- 7, ostirala: 22.00etan Aita Mari aretoan antzerkia Kanpingags taldearen "Ipuin guztiak" antzezlan.

- 9, igandea: 12.00etan Aita Marin, haur antzerkia Gorakada taldearen "Jim altxor uhartean"



nabarralde

Lehen: Alondegia aretoa
Egunak: Asteazkenetako ostegunak
Ordea: 19:00
Hizlariak: eta beste arloak

Hitzaldi-Aurkezpena

Nafarroa Osoa

Euskal Herria / Vasconia: konzeptu kulturala
Nafarroa / Navarra / Navarre: euskal estatua



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
ZUMAI A

OSASUN-ZIURTAGIRIAK GIDATZEKO ETA EHIZARAKO BAIMENAK LORTZEKO

Ordutegia: astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara

Aurretik ez dago txanda eskatu beharrik. Eraman beharrekoa: gidatzeko baimena eta argazki bat

Ipar Kalea 17, Behea, (Pagoeta Tabernaren ondoan) **ZARAUTZ**
Telefono zenbakia: 686 954 299



Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278



Erribera kalea 18 Behe Tel/Fax: 943 143097

20.750 Zumaia ekin@ekin.es

Instalazioak/banatuak ofiziala



tresna digi-
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



Maite
ileapaindegia

AUTO ESCUELA ZUMAIÀ

- ❶ gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- ❷ praktika eta azterketak Azpeitian
- ❸ gure helburua:
gidari trebe eta profesionalak egitea

BASADI, 12 BEHEA

TEL. 943 86 10 18



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Mego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**

TAILERRA: Santxo auzoa40